


# ZERUERTZ

## ZERUERTZERA BEGIRA



### GIDA DIDAKTIKOA

DBHko ikasleekin kultura arteko hezkuntza eta sentsibilizazioa lantzeko

2022-2023 IKASTURTEA

# SARRERA

## Ongietorria eta agurra

**Kulturarteko hezkuntza eta sentsibilizaziorako Gida Didaktiko** hau, esku artean daukazuna, ZAKAN SOZIAL osatzen duen talde teknikoak osatu du, Nafarroako Gobernuak finantzaturako Zeruertz Proiektuaren baitan. Proiektu hori Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak kudeatutako hurrengo deialdiaren bidez finantzatu da: 2022ko Dirulaguntza toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei, kulturarteko bizikidetza sustatzeko eta arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko proiektuentzat.

Ekimenak **esku-hartze bat** proposatzen du hezkuntzaren esparruan, **prozesu gisa**, zehazki Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako **bigarren hezkuntzan**, ikuspegi komunitario, integratzaile eta parte-hartzaile batetik.

Betidanik, Nafarroako gizartea kultura askok osatu dute; hala ere, estatuko gainerako lurraldeetan bezala, askotan kolektiboak elkarrekin ia interakziorik eduki gabe bizi dira. Kulturarteko ikuspuntua ez da ezberdintasunak ezagutu eta horiei balioa ematera mugatzen. Izan ere, elkarren arteko ulermenaren, elkar onartzearen eta **kulturarteko elkarriketaren** garrantzia azpimarratzen du.

Hori dela eta, proposamenak esku hartzeko eta kulturarteko hezkuntzarako hainbat estrategia eskaintzen ditu, eskola-elkartean eta, hortaz, lurraldean bizikidetza bultzatzeko.

ZERUERTZ Proiektuak proposamen zabala eta malgua egiten du, ikastetxeetako askotariko aukeretara moldatzeko gai dena, eta hiru jarduera-lerro eskaintzen ditu, ikastetxe bakoitzaren intentsitate eta baliabideen arabera aldatzen direnak:

- 1) Irakasleentzako material didaktikoa (Gida Didaktiko hau).
- 2) Kulturartekotasunari buruzko tailerrak ikasgelan (ikasleentzat).
- 3) Kulturarteko lankidetzari buruzko jardueren dinamizazioa (eskola-elkarterekin batera).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (aurrerantzean, DBH) irakasleentzako Gida Didaktiko hau kolektibo profesional horren kulturarteko trebakuntzarako tresna bat da. Helburua irakasleek ezagutzak eta tresnak eskuratzea da, ikasgelan kulturarteko hezkuntza eta sentsibilizaziorako jarduerak dinamizatzeko; beraz, kulturartekotasunerako **hezkuntza-programa** baten barruan kokatzen da.

Horrela, gai-multzo bakoitzaren kontzeptualizazio teorikoaren ondoren, ikasgelan burutu beharreko zenbait dinamika proposatzen dira, ZAKAN SOZIAL osatzen duen talde teknikoak baliozkotu dituenak, ikasleekin garatzeko. Gida honetan, metodologiak proposatuko dira, **arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokan laguntzeko, eta, azken batean, kulturarteko bizikidetza eta elkarriketa sustatzeko.**

## AURKIBIDEA

<b>1. LAGUNTZA GIDA ERABILTZEKO .....</b>	<b>5</b>
1.1. DINAMIZAZIOAKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK .....	6
1.1.1. <i>Talde heterogeneoen ezaugarriak</i> .....	6
1.1.2. <i>Lekuaren ezaugarriak</i> .....	7
1.1.3. <i>Bideratzailearen ezaugarriak</i> .....	7
1.2. METODOLOGIA .....	8
1.3. EBALUAZIO-SISTEMAK .....	8
<b>2. UNITATE DIDAKTIKOA .....</b>	<b>10</b>
<b>I. UNITATE DIDAKTIKOA: MIGRAZIOAK ETA BEREN PROZESUAK .....</b>	<b>11</b>
KONTZEPtualIZAZIO TEORIKOA .....	11
<i>Funtsezko kontzeptuak</i> .....	11
JARDUEREN PROPOSAMENA .....	14
1. <i>Nire motxila</i> .....	14
2. <i>Migratzea noiz aukeratzen dut</i> .....	16
o <i>Proposatutako jarduera osagarria: Zer objektu utziko genituzke atzean?</i> .....	19
<b>II. UNITATE DIDAKTIKOA: MIGRAZIOA GLOBALIZAZIOAREN MUNDUAN .....</b>	<b>21</b>
KONTZEPtualIZAZIO TEORIKOA .....	21
JARDUERA PROPOSAMENAK .....	24
1. <i>Orain dena nahastuta badago... Nongoa naiz?</i> .....	24
2. <i>Kontsumoaren gizartea</i> .....	26
o <i>Jarduera proposamen gehigarria: Nola konpondu ditzaket gatazkak?</i> .....	28
<b>III. UNITATE DIDAKTIKOA: ARRAZAKERIA: ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK .....</b>	<b>30</b>
KONTZEPtualIZAZIO TEORIKOA .....	30
<i>Estereotipoa</i> .....	30
<i>Aurreiritzia</i> .....	31
<i>Diskriminazioa</i> .....	32
JARDUERA PROPOSAMENAK .....	33
1. <i>Errealitatea vs. Interpretazioa</i> .....	33
2. <i>Batera loratzen</i> .....	35
o <i>Jarduera proposamen gehigarria: Deseraiki dezagun arrazakeria</i> .....	37
<b>IV. UNITATE DIDAKTIKOA: FEMINISMOA ETA KULTURARTEKOTASUNA .....</b>	<b>39</b>
KONTZEPtualIZAZIO TEORIKOA .....	39
<i>Mugimendu migratzaileen feminizazioa</i> .....	40
JARDUERA PROPOSAMENAK .....	42
1. <i>Botere sozialaren lorea</i> .....	42
2. <i>Rosa Parks-en epaiketa</i> .....	45
o <i>Jarduera proposamen gehigarria:</i>	
<i>Lanaren banaketa. Zenbat denbora geratzen zaie</i> .....	47

<b>V. UNITATE DIDAKTIKOA: GIZARTE- ETA KULTURA-BIZIKIDETZA EREDUAK.....</b>	<b>50</b>
KONTZETUALIZAZIO TEORIKOA.....	50
<i>Kultura-aniztasuna</i> .....	50
<i>Kulturartekotasuna</i> .....	51
<i>Kultura-aniztasunetik kulturartekotasunera</i> .....	51
<i>Transkulturalitatea</i> .....	51
JARDUERA PROPOSAMENAK.....	53
1. <i>Kulturarteko sarea</i> .....	53
2. <i>Gure berezko kultura sortzen</i> .....	55
o <i>Jarduera proposamen gehigarria: Zibilizazioa kezkaz beterik</i> .....	57
<b>VI. UNITATE DIDAKTIKOA: KULTURARTEKO ELKARRIZKETARANTZ AURRERA EGITEN .....</b>	<b>59</b>
KONTZETUALIZAZIO TEORIKOA.....	59
<i>Entonzentrismoa</i> .....	59
<i>Kultura-erlatibismo</i> .....	59
<i>Kulturarteko elkarrizketa</i> .....	59
<i>Gizarte-kode eta -balio ezberdinak</i> .....	60
<i>Hizkuntza ezberdinak</i> .....	60
<i>Komunitatearen parte-hartzea: kulturarteko elkarrizketa laguntzeko gunea</i> .....	60
JARDUERA PROPOSAMENAK.....	62
1. <i>Kultura-aniztasunaren zuhaitza</i> .....	62
2. <i>Taldea aberasten</i> .....	64
o <i>Jarduera proposamen gehigarria: Sarean partekatzen</i> .....	66
<b>MATERIAL ERANSKINAK.....</b>	<b>69</b>
1. ERANSKINA. BAIEZTAPEN POSIBLEEN ZERREDA.....	69
2. ERANSKINA. KULTURA BERRIAREN SORRERARAKO FITXA TEKNIKOA. ....	70
3. ERANSKINA. CLIEXTE HERRIARI BURUZKO INFORMAZIOA. ....	71
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>76</b>
<b>MATERIAL GEHIGARRIAK .....</b>	<b>87</b>

## 1. LAGUNTZA GIDA ERABILTZEKO

Kulturarteko hezkuntza eta sentsibilizaziorako Gida Didaktiko hau **Nafarroa osoko Bigarren Hezkuntzako** irakasleentzat da. **Kulturarteko Hezkuntza Programaren** barruan dago, eta prozesu bat da, ekintza-estrategiak dituen; beraz, aurkeztutako unitate didaktiko guztiak garatzea gomendatzen da.

Zehazki, 12 eta 16 urte arteko ikasleekin elkarrekintzan dabilen irakasleei zuzenduta dago. Gidak gaikako eduki-sorta bat proposatzen du, teoriaren eta tailer praktikoen bidez garatuko dena. Azken horien zailtasuna ikasleen adinera moldatuko da. Edukien eta tailerren aukeraketa aldeztu aurretik balioztatu da, eta, ondoren, lan egin da jarduerak giza garapenaren etapetara egokitzeko. Ondorioz, honako **adin-tarte** hauek zehaztu dira: 12-14 urte eta 14-16 urte.

Jarduerak ikasgela osatzen duen **talde naturalarekin** egingo dira, ohiko bizikidetzako eremu batean lan egiteko. Banakako hausnarketa sustatzen badu ere, lanak partekatuz ezagutza sortzea ere bilatzen da. Horretarako, gutxienez 6 parte-hartzaile eta gehienez 30 izatea gomendatzen da.

Aurkeztutako jarduerak bigarren hezkuntzako eskola estandar baten denborara moldatu dira. Beraz, gutxi gorabehera 55 minutu iraungo dute, eta saio guztiek **egitura bera** izango dute:

- **Sarrera:** Saioan jorratuko diren gaietarako azalpen laburra, teoriaren, ikus-entzunezko euskarrien eta taldeko eztabaida txiki baten bidez. Iraupena: 5-15 minutu.
- **Dinamika nagusia:** Aurreikusitako edukiei moldatutako jarduera nagusia dinamizatzea, banakako hausnarketen eta taldeko eztabaida baten bidez. Iraupena: 35-45 minutu.
- **Amaiera eta ebaluazioa:** Saio osoan landutakoaren itzulpena, taldean partekatuz. Hausnarketa eta bilketarako tarte bat da. Iraupena: 5-15 minutu.

Lehen saioaren hasieran, Kulturarteko Hezkuntza Programaren helburuak eta landu beharreko edukiak **aurkeztuko** zaizkie ikasleei; programaren egitura globalaren azalpen laburra egingo da.

Ikasgelan postontzi fisiko bat egotea iradokitzen da, esku-hartze osoan zehar, ikasleek landu beharreko gaiekin lotutako interesak aurkeztu eta galderak egin ditzaten. Horrela, hasieratik, postontzi hori interakzio eta kontsultarako tresna gisa aurkeztuko da, eta, programatutako saioetan zehar, ikasleriaren jakin-mina piztutako gaiak landu ahal izango dira.

Alternatiba gisa, tresna digitalak, online inprimakiak, erabili ahal izango dira. Horien bitartez, irakasleak edo kanpoko bideratzaileak interes eta galdera horiek biltzeko aukera izango du.

Prozesu edo Programaren hasieran, talde edo ikasgela bakoitzarekin elkarbizitzarako **funtssezko jarraibideen kontratu bat** egitea proposatzen da, oinarritzko premisa batzuekin. Jarraian, adibide gisa, horietako batzuk aipatzen dira:

- Puntualtasuna eta jarraitasuna.
- Errespetua ikaskide, irakasle eta beste profesionalen.
- Errespetua besteek hitz egiten dutenean.
- Jarrera eta entzute aktiboa.
- Euskarri digitalak erabiltzea irakasleak diotenari jarraituz.
- Konfidentzialtasuna mantentzea.

Ikasleek arau horiek sortuz eta adostuz gero, horiek betetzea errazagoa izango da. Horrela, parte-hartzaileek arau horiek ezartzeko lankidetzak aktiborako aukerak hautematen dituzten heinean, errazagoa izango da horiek barneratzea eta ondoren betetzea. Funtsezko jarraibideen zerrenda osatu eta gero, talde osoak akordioarekin bat egitea bilatuko da, eta saio guztietan arauak gogoratuko dira.

Gida Didaktiko honen eta garatzeko proposatutako Programaren xedea kulturarteko jarrera positiboetan **sentsibilizatzea eta hezte**a da. Beraz, Gida honetan, jorratu beharreko honako helburu nagusi hauek identifikatzen dira:

- Nafarroako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan kulturarteko bizikidetzak erraztea.
- Kulturarteko komunikaziorako gaitasunak sustatzea.
- Kultura aniztasunaren aldeko jarrera irekia eta sentikortasuna babestea, norbanakoaren eta taldearen aberastasuna sustatuz.
- Zentzu kritiko konstruktiboa eta norberaren eta beste pertsonen kulturarekiko errespetua indartzea.
- Pertsona eta talde kultural desberdinei zuzendutako estereotipo, aurreiritzi eta ekintza baztertzailak identifikatu eta gainditzeko tresna praktikoak ematea.

Halaber, proposatutako unitate didaktikoekin lotutako jarduera parte-hartzaile bakoitzak lortu beharreko **berariazko helburuak** ditu.

## 1.1. Dinamizaziorako funtsezko elementuak

Hurrengoak dira DBHko ikasleei zuzendutako jarduera parte-hartzaileak zuzen garatzeko kontuan hartu beharreko elementuetako batzuk: talde naturalaren barruan sortutako taldeen ezaugarriak, azpitalde heterogeneoak sortzeko; jarduera egiteko aukeratutako **lekuaren berezitasunak**; eta pertsona bideratzailearen **komunikazio- eta dinamizazio-gaitasunak**.

### 1.1.1. Talde heterogeneoen ezaugarriak

Ikasgelaren barruan talde heterogeneoak sortzeko, nahitaezkoa da parte-hartzaileen (ikasleak) profila ezagutzea: jokabideak, ezaugarriak, harremanen dinamikak -lidergo motak, egungo rola-, eta abar. Horrez gain, zehaztu behar da talde multikulturala edo kulturartekoa den, pertsonen arteko gatazkekin edo gatazkarik gabe, bai eta talde horren motibazioak eta harremanen azpian dauden alderdiak ere, besteak beste.

Taldeen kategorizazio egokia egiteko ikasleak ezagutzea garrantzitsua denez, irakasle bat izango da talde horiek sortuko dituen (egokiena, tutorea izango da).

Talde horiek sortzeko, ikasle bakoitzaren honako ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza-gaitasun maila.
- Nortasun kulturala.
- Motibazioa eta interesa.
- Harreman-patroiak eta komunikazio-gaitasunak.
- Abilidade pertsonalak (gatazkak konpontzea, erresilientzia, besteak beste).

Beren kideen aniztasunagatik taldeek aldakortasuna eduki dezakete, gogoetarako gaitasun, pentsamendu kritiko edo motibazio handiagoa edo txikiagoa, besteak beste. Gida honek,

unitate didaktiko bakoitzean, jarduera desberdinak planteatzen ditu, dinamika bakoitza garatzeko aurreikusitako denborarekin batera. Halaber, unitate didaktiko bakoitzaren amaieran, beste jarduera osagarri bat iradokitzen da. Egitura horri esker, irakaslearentzat errazagoa izango da inguruaren eta dinamiketan parte hartutako pertsonen baldintza eta ezaugarrietara hoberen moldatzen diren lanak aukeratzea. Malgutasun horren bidez, eta baliabideak hartzaileari moldatzeak duen garrantzian oinarrituta, gida honen xedea irakasleek eta ikasleek kulturarteko sentsibilizazioaren arloan ahalik eta trebakuntza onena lortzea da.

### 1.1.2. Lekuaren ezaugarriak

Ikasgela tresna baliotsua da ikaskuntzarako. Beraz, garrantzitsua da jarduera didaktikoaren garapen eta kudeaketan elementu hori kontuan izatea. Jarraian, zenbait alderdi proposatzen dira, planteatutako jardueren dinamizaziorako baldintza optimoak osatzen dutenak.

Ikasgelaren banaketari dagokionez, gomendagarria da **leku garbi eta moldakor** bat izatea, momentu bakoitzean behar den erabileraren arabera moldatu ahal izateko. Gomendagarria da saioak leku zabal batean dinamizatzea, parte-hartzaileen arteko elkarreragin arina eta mugimendu librea ahalbidetzeko. Zentzu horretan, garrantzitsua da **altzari egokituak** izatea, egoerak eskatuz gero erosotasunez kendu ahal izateko. Halaber, ahal dela **argiztapen eta akustika ona duten lekuak** erabili. Horretarako, onuragarria litzateke eguzkiaren argia maximizatzea eta argi artifizialaren esposizioari arreta jartzea, ondo ikusten eta proposatutako jardueretan kontzentratzen laguntzeko. Edozelan ere, funtsezkoa da argitasun falta edo argiarekiko esposizioaren intentsitate handia ekiditea. Ildo horretatik, asko baloratzen da jarduera didaktikoak akustika ona duten lekuetan egitea, entzumen-efektu desatseginik, hala nola oihartzunik, gabeko lekuetan, jarduera ondo burutzea mugatu dezaketelako.

Iradoki den moduan, goian adierazitako oharrak jarraibide egokitza jotzen dira, jardueretan landutako helburuak hobeto lortzeko. Hala ere, eta ikastetxeetako gelak erabiltzeko dauden mugak kontuan hartuta, garrantzitsua da adieraztea jarraibide horiek ez betetzea ez dela bateraezina jardueren garapenarekin.

### 1.1.3. Bideratzailearen ezaugarriak

Bideratzaileek kulturarteko alorrean duten gaitasunak saioek ikasleak aldatzeko izango duten gaitasuna zehazten du. Chen eta Starostaren (1996) aburuz, kulturarteko gaitasuna hau da: «kultura esanahiak negoziatzeko eta parte-hartzaileen askotariko nortasunen arabera modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasuna».

Hezkuntza formalaren testuinguruan kulturarteko gaitasuna garatzeko, aldeztu aurretik profesionalak gaitu behar dira kulturarteko hezkuntzan esku-hartzeko funtsezko gaitasunetan. Xede horrekin, Vázquez Aguadok (2002) profesionalak lortu beharreko hiru helburu identifikatzen ditu:

- Kultura anitzeko gizarteetako diskurtso nagusiak aztertze gai izatea.
- Pertsonen arteko bizikidetzan hezte, kolektibo gutxiengodunetakoak edo nagusietakoak diren kontuan hartu gabe.
- Saihestea aniztasunaren ondorioz sortutako gatazkak bizikidetzarako oztopo bihurtzea.

Laburbilduz, bideratzaileak kulturarteko gaitasuna eduki behar du, bai eta lidergorako eta taldeak zuzentzeko behar diren gaitasunak ere.

## 1.2. Metodologia

Gida Didaktiko hau aplikatzeko, **ikuspegi kritiko eta sormenezko** batetik lan egitea proposatzen da. Aniztasuna ez da arazotzat hartuko, baizik eta babes eta aberastasun alderditzat eta bizikidetzarako eta aurrerapenerako tresnatzat.

Ildo horretatik, funtsezko gai batzuk aztertzen dira, hala nola “kultura” edo “nortasun kulturala”, **ikuspegi konstruktibo** batetik, etengabe mugitzen eta eraldatzen ari diren kontzeptuak direlako.

Proposatutako taldeko jardueran, **ikuspegi sozioafektiboa** txertatzen da; pertsonen dimentsio soziala eta komunikatiboa kontuan hartu eta beren gaitasun enpatikoa sustatzen du, elkarerraginean eta harremanetan horizontaltasuna bultzatuz. Halaber, taldeak jardueretan duen motibazioa eta konfiantza sustatu nahi dira, egiten diren eztabaida eta hausnarketetan berezkotasunak eta malgutasun pertsonalak duten garrantzia azpimarratuz.

Era berean, **lankidetzako ikaskuntza** ere aintzat hartzen da, talde-esperientzien bizipenetatik sortzen dena. Horretan, pertsona talde heterogeneo batek helburu komun bat lortzen du, adostasunaren, lankidetzaren eta desberdintasunen onarpenaren bidez, besteak beste, errespetua, enpatia eta elkar laguntza alderdiak txertatzeko. Ikasleentzat, beren ikasprozesuaren protagonista jarrera aktibotik sentitzea motibatzailea da berez; izan ere, ezagutza elkarrekin eraikitakoaren ondorio izateak ikasgelan egon daitekeen curriculum ezkutua gainditzeko laguntzen du.

Hori dela eta, garrantzitsua da halaber, talde bakoitzean **bidezko parte-hartzea** bermatzea eta pertsona guztiek parte-hartze bera izateko aukera edukitzea. Xede horrekin, jarduera zuzentzen duen pertsona izango da arazo gehiago dituzten taldeko pertsonak suspertu beharko dituen.

## 1.3. Ebaluazio-sistemak

Ebaluazioa etengabeko hobekuntza-prozesu bat izango da, eta tresna sistematizatu kualitatibo zein kuantitatiboekin laguntzarekin egin ahal izango da. Ebaluazioren bidez, prozesuan garatutako jardueren buruzko ondorioak atera daitezke. Gainera, programaren alderdi indartsuak detektatu daitezke, bai eta hobetu beharreko alderdiak ere. Horrela, ebaluazioaren bidez ondorioak atera daitezke, ondoren txertatu daitezkeen doikuntzak ekar ditzaketanak.

Ildo horretatik, ezinbestekoa da programaren ebaluazio globala egitea, bai eta proiektuaren beraren esparruan garatutako jarduera bakoitzaren ebaluazio partzialak ere. Horretarako, alde batetik, **kulturarteko sentsibilizazioa** aldagaia neurtzeko tresna bat eta, bestetik, gogobetetzea neurtzeko zenbait galde-sorta erabiliko dira. Proba horiei guztiei esker, programak eta egindako jarduerak parte hartutako pertsonengan izandako eraginaren analisi kualitatiboa egingo da, eta ondorio sendoak aterako dira, antzemandako hobekuntzak txertatzeko. Halaber, ebaluazioak sustatzen du kulturarteko elkarriketa sustatu nahi duten beste ekimen eta jarduera batzuetara transferitu daitezkeen ezagutzaren garapena.

Ebaluazio zuzena egiteko, kontuan hartu behar dira proiektu honetan aurretik deskribatutako atalak: proposatutako jarduerak zehaztea, ebaluazioan erabilitako adierazleak, bai eta horien egiaztapenean erabilitako bitartekoak ere. Horrela, ondorioak azken txostenean jaso nahi dira, garatutako proiektuaren gardentasuna bermatuz.





Ebaluazioan lortutako datuen erregistro sistematizatuak Kulturarteko Hezkuntza Programaren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa eskaintzen du, eta, horri esker, ondorioak atera eta hobekuntzetarako proposamenak egin daitezke. Halaber, jardueraren dinamizazioan ikasleak aztertuz gero, kide bakoitzaren parte-hartzea, pertsonen arteko dinamikak edo jorratutako edukien integrazioa aztertu daitezke, besteak beste. Informazio inplizitu zein esplizitu horren bilketari esker, detektatutako hobekuntzak hurrengo esku-hartzeetan txertatu daitezke, jarduerak taldearen beharretara hobeto moldatu ahal izateko.

Saio bakoitzaren amaieran, ebaluazio txiki bat egingo da, ikasleek ikasitakoa eta sentitutakoa jasoko duena. Esku-hartze osoa bukatzean, hausnarketa-lan zabalago bat egin ahal izango da, modu globalean zehaztutako helburuak bete ote diren eta garatutako programarekin gogobetetze maila orokorra zein izan den ebaluatzeko.

## 2. UNITATE DIDAKTIKOAK

Kultura aniztasunaren kudeaketa gure gizartearen erronka handienetako bat da. Migrazioa eta aniztasuna ez dira koiunturazko fenomenoak, egiturazkoak baizik, kulturarteko bizikidetzak sustatzeko erantzun globalak behar dituztenak.

Errealitate hori hezkuntzaren testuinguruan islatzen da. Izan ere, berezko ekosistema bat da, non inguru sozialeko askotariko errealitateak erreproduzitzen baitira. Horrela, kultura aniztasuna ikasgeletako errealitate nabarmenetako bat bihurtzen da.

Modu berean, **hezkuntza-giroa** komunitatearen testuingurura transferitzen da; auzoetara, herrietara eta horietan ezartzen diren harremanetara (modu eta adierazpen guztietan), eta, beraz, isla argia du gizarte osoan. Hori dela eta, hezkuntza-eremua esku hartzeko eszenatoki egokia da, Nafarroako egungo eta etorkizuneko gizartearen kulturarteko bizikidetzak aberasteko.

Horrela, **metodologia parte-hartzaileen** bidez, hezkuntza-eremuan jarduera-sorta zabala proposatzen da, Nafarroan haurren, gazte migratzaileen eta errefuxiatuen fenomenoarekin lotutako hurbilketa, elkarrekintza eta hausnarketa sustatzeko.

Horrekin guztiarekin nabarmendu behar da, aldeztu aurretik enpatia eta pentsamendu kritikoa eta sormenezkoa sustatuko dituen sentsibilizazio-ariketa egin ezean, zaila dela **kulturarteko elkarriketarako** oinarriak finkatzea.

Jarraian, kulturarteko sentsibilizazioan landutako unitate didaktikoak aurkezten dira, DBHn aplikatu daitezkeenak. Aurreko ataletan adierazi den bezala, material didaktiko honen edukiak eta egitura irakasleei zuzenduta daude, kulturarteko esparruan beren gaitasuna sustatzeko tresna gisa. Horrela, bitarteko honek oinarritzko ezagutzak eskaini ditzake landu beharreko gaiak buruz, eta ezagutza hori aurkeztutako bibliografia osagarriarekin handitzeko aukera egongo da.

# UNITATE DIDAKTIKOAK

## I. UNITATE DIDAKTIKOA: MIGRAZIOAK ETA BEREN PROZESUAK

### Kontzeptualizazio teorikoa

Existitzen denetik, gizakia planetatik ibili da askotariko arrazoiak tarteko: klima, lan aukerak, eta gizabanakoaren eta taldearen biziraupena, besteak beste. Beraz, ez da fenomeno berria edo gutxiengo bati lotutakoa (Naciones Unidas, d.g.).



1 irudia. Pertsona-talde baten siluetak (Pixabay, 2021)

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (IOM) 2022an munduko migrazioei buruz egindako txostenaren arabera, 2020an

munduan gutxi gorabehera 281 milioi migratzaile zeuden. Kopuru hori munduko populazioaren % 3,6 da. Europan, zehazki, 2022. urtean zehar nazioarteko 87 milioi pertsona inguru hartu dira. Horrela, urteroko txostenaren eguneratze horretan, Nazio Batuen eskualde guztietan migratzaileen kopurua nabarmen handitu dela eta Europan eta Asian hazkunde hori esponentziala izan dela jasotzen da (Organización Internacional para las Migraciones, 2022).

Espainiari dagokionez, 2020an 415.150 migratzaile zeuden; 2021ean kopuru hori handitu eta 456.573 pertsonakoa izatera pasa zen. Hala ere, 2022ko lehen seihilekoan baino ez, Espainian 441.781 pertsona migratzaile zeudela kalkulatu da (Instituto Nacional de Estadística, 2022). Zentzu horretan, eta zehazki Nafarroan, 2020an atzerrian jaio eta Nafarroan erroldatutako pertsonen kopurua % 1,5 hazi zen; urte horretako urtarilaren 1ean, 106.559 ziren beste herrialde batzuetan jaiotako migratzaileak. Urtebete beranduago, 2021eko urtarilaren 1ean, kopuru hori 1.613 pertsonatan hazi zen; guztira, 108.172 ziren Nafarroan erroldatutako pertsona migratzaileak (Gobierno de Navarra, 2021).

Idea zehatz bat izateko eta aurrerago azalduko diren elementuetan sakondu ahal izateko, garrantzitsua da funtsezko kontzeptu batzuk definitzea (Movimiento asturiano por la paz, 2012).

### Funtsezko kontzeptuak

- **Migratzailea:** Bere jaioterria ez den beste eskualde batera, bertan kokatzeko, doan pertsona, lekualdatzearen arrazoiak, iraupena, borondatez edo behartuta egin duen, kontuan izan gabe (Organización Internacional para las Migraciones, 2019).
- **Emigrantea:** Bere jaioterritik beste leku (herri, herrialde edo eskualde) batera joateko lekualdatze-prozesua hasi duen pertsona (Organización Internacional para las Migraciones, d.g.).
- **Etorkina:** Aldi baterako edo betirako bere jaioterria ez den leku batean bizi den pertsona (Organización Internacional para las Migraciones, d.g.).

- **Irregularra:** Migratutako pertsonak, legezko bizilekua eta herritarren etiketa izateko eskubide osoa aitortua ez dutenak. Horrek ondorio larriak ditu, maila guztietan, pertsona horientzat (Movimiento asturiano por la paz, 2012).
- **Migrazio-proiektua:** Egingo den lekualdatzea aurreikuspenetan oinarrituta planifikatzea: helmuga, bidaia, itxaropenak, helburuak... Migratuko duen pertsonak edo pertsonak egiten dute (González, 2005).
- **Migrazio-fluxua:** “Epe zehatz batean herrialde zehatz batean sartu edo handik ateratako migratzaile-kopurua”. Globalizazioak fluxu horiek mundu osoan egotea dakar: munduko edozein lekutan kokatzeko “aukera”. (División de Estadística de las Naciones Unidas, 2017).
- **Migrazio-duelua:** Migrazio-prozesuari lotutako duelua. Duelu anitza da, hainbat galerari aurre egin behar zaielako: pertsona maiteak, hizkuntza, kultura, besteak beste; beraz, duelu mota hori, arrisku-faktoreen arabera, patologia bihur daiteke (Achotegui, 2004).

Pertsona migratzaileen eta errefuxiatuen artean alderik bada ere, Téllezek (2001) hau dio: *“alferrikakoa da errefuxiatu politikoen eta etorkin ekonomikoen artean bereiztea, miseriaren arrazoi nagusia politika ere baita”*. Beraz, analisi honetan ez dugu ezberdintasun gehiago egingo pertsona migratzaileen eta errefuxiatu politikoen artean. Horrek ez du esan nahi garrantzitsua ez denik migratutako pertsonen arrazoiak eta baldintzak kontuan hartzen dituen migrazioari buruzko ikuspuntu bat izatea.

Gaur egun, migrazio-prozesu bati, bizi-baldintza hobeak izateko itxaropenarekin, ekiteko arrazoi nagusiak hauek dira: lan aukera berriak bilatzea edo pertsonen segurtasuna eta integritatea arriskuan jartzen duten zaurgarritasun handiko egoerak bizitzea (errefuxiatu izaera). Hala ere, eta klima-aldaketaren ondorioz, migrazio-fluxuen hazkunde nabarmena egon da, klima-aldaketak biztanleriarengan duen eragin handia dela eta (Naciones Unidas, d.g.).

Horrela, pertsona migratzaile asko bakarrik heltzen dira, aukera bat aprobetxatuz, eta muturreko errealitate batean aurkitzen dira; kultura batera zailtasunekin moldatu behar dira eta harrerako giro sozioekonomikoa kontra izaten dute. Estresa eragiten duten egoeraz beteriko prozesu horretan, beldurra emozio nagusia da, pertsona migratzaileek aurrean duten hesi handia dela eta (Páez, 2015).

- **Beldurra nahi ez den bakardadeari:** normala da pertsona maiteak atzean uzteak eta moldatzeko etapari bakardadean aurre egiteak beldurra eragitea. Aldez aurretik non kokatuko diren zehaztu gabe migrazio-prozesu bati hasiera emandako pertsonak, Aguilar (2003) eta Gómez Mangorentzat (2003) pertsona bidaiariak direnak, ezegonkortasun handia bizi dute, harrera-herrialdean instalatzen ez direnez eta “bidaiatzen jarraitzen” dutenez, laguntza-sareak sortzeko aukerarik ez dutelako, besteak beste.
- **Beldurra migrazio-prozesuaren porrotari:** Pertsona batzuentzat jaioterrira bueltatzeak migrazio-prozesuan zehaztutako helburuak eta itxaropenak ez betetzea eta, ondorioz, porrot egin izanaren pertzepzioa eragin dezake. Gertakari horrek hainbat sentimendu eragingo lituzke, hala nola etsipena, tristura eta larritasuna (Páez, 2015).
- **Beldurra egokitzapenera:** Migrazio-prozesuen kasuan, egokitzapena, Sayed-Ahmadek (2013) deskribatzen duen bezala, hau da: “gizakiak moldatu, egokitu eta integratzeko duen gaitasuna, etengabe aldatzen ari den eta subjektuak aurre egin eta gainditu behar izan duen ingurune fisiko eta kultural batean. Aldaketa horien artean migrazioaren fenomeno dago. Egokitze-prozesuan estresa eragiten duten egoera

batzuk daude, dueluaren antzekoak direnak, eta ezaugarri komun gisa migrazio-prozesu osoan zehar hedatzen den anbigualentzia dakartenak". Ildo horretatik, Calvok (1970) dio, besteak beste, kulturak, hizkuntzak eta geografiak estres handia eragiten diotela pertsona migratzaileari. Norbait, besteak beste, kultura, hizkuntza eta gizarte oso ezberdinak dituen leku batera doanean, normala da egokitzapena zaila dela sentitzea. Izan ere, desberdintasunak onartzeko eta bi perspektibak (kultura, hizkuntza, harreman-dinamika propioak eta harrera-lekukoak) integratzeko prozesu batetik igaro behar da. Hori ere gertatzen da, nahiz eta bizipena izan aurretik ezberdintasun horiei buruz hausnartu.

- **Beldurra biolentzia, arbuio eta xenofobiari:** Zoritzarrez, migrazio-prozesu batzuetan biolentziaz beteriko bizipenak izaten dira. Migratzera behartutako pertsona askorentzat, arrazismoari lotutako biolentzia eguneroko kontua da (Martínez eta Martínez, 2018). Makro mailan, legediari erreferentzia eginez, nazioarteko eta estatuko hainbat arauk pertsona migratuen duintasuna eta bizi-kalitatea babesten dituzte teorikoki, lanerako, gizarte-segurantzarako, bizi-maila egokirako, osasunerako, hezkuntzarako eta kulturen parte hartzeko eskubidearen bidez. Hala ere, garapen-bidean dauden herrialde askotan, bai eta herrialde garatuetan ere, praktikan oinarritzko eskubide horietako batzuk ez dira onartzen, eta, ondorioz, pertsona migratzaileak nabarmen diskriminatzen dira (Alarcón, 2020). Mikro mailan, pertsona migratua izateagatik baino ez, indarkeria fisikoak eta psikologikoak (irain arrazistak, begiradak, erdeinuzko keinuak...) eta beste mota batzuetakoak jasan ditzakete (Martínez eta Martínez, 2018).

Migrazio-prozesuek, globalizazioarekin (maila ekonomikoan, baliabideen kudeaketan, etab.) eta komunikabideen eta sare sozialen irismenarekin batera, kulturen arteko etengabeko transferentzia sustatu dute (Sayed-Ahmad, 2013).

Hala ere, hainbat lurraldetan, globalizazioak desberdintasun handiak ekarri ditu baita ere. Alde batetik, populazio migratzaile handienak dituzten herrialdeetan, baliabide naturalen esportazio masiboa ikus daiteke. Bestalde, migrazio-fluxu batzuen ohiko helmuga izan ohi diren herrialdeek migrazio-politika murriztaileagoak izan ditzakete, irregulartasun-egoera eta zaurgarritasun-baldintza gehiago sortuz. Adibide horietako bat lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik lan prekarioak egitea izan daiteke. Baldintza horiek desberdintasunak eragiten dituzte, eta ez dute ongizate global jasangarria lortzen laguntzen (Sayed-Ahmad, 2013).



2. Irudia. Emakume baten irudia (Pixabay, d.g.)

Kontuan izan behar da migrazioa egon dela eta beti egongo dela. Beraz, fluxu horiek eta pertsona horien harrera zailtzeko egindako ekintzek eragiten duten gauza bakarra migrazio klandestino haztea da, eta horrek bazterketa- eta diskriminazio-egoera gehiago eragiten ditu. Gainera, migrazio-fluxuen ondorioz kultura ez da estatiko mantentzen, eta kulturarteko espazioak eraikitzeke aukerak eskaintzen dituzte. Esandako guztiarekin nabarmendu nahi dena da migrazioa ez dela banakako proiektu bat soilik, baizik eta eragin ekonomiko, sozial eta kulturala duen espazio global baten zati bat.

## Jardueren proposamena

### 1. Nire motxila.

#### HELBURUAK:

- Migratzeko dauden askotariko arrazoiak ezagutzea.
- Migrazioan eragina duten botere-ardatzak daudela jakitea.
- Kontsumoari eta ondasun materialei buruzko begirada kritikoa izatea.
- Migrazio-prozesuekiko eta horiek egiten dituzten pertsonetikiko enpatia sustatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Arbela, errotuladorea.

**JARDUERA BURUTZEKO DENBORA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKUNTZA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Hasteko, sarrera txiki bat egingo da migrazioaren kontzeptuari buruz. Horretarako, askotariko dinamikak erabili daitezke; irakaslearen azalpen teorikoa, aurreko *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean bildutako informazioarekin, zein ikasleak kontzeptu horretara elkarrekin hurbiltzea. Xede horretarako, gogoetazko galderak erabili daitezke, hala nola hurrengoak: Zer dakigu migrazioa kontzeptuari buruz? Zer arrazoiak eragin dezakete pertsonen migrazioa? Zuren inguru hurbilean migrazioa egon al da?

Dinamika horren **iraupena 10 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

##### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera nagusian, migrazio-prozesu bati ekiteko behar diren baliabide propioen garrantziaz arituko gara.

Horretarako, taldea aldez aurretik egituratutako azpitaldeetan bananduko da. Jarduera nagusi horretan, lehendabizi ikasleei eskatuko zaie migrazio-prozesu batean beraiekin eramango lituzketen 5 objektu/baliabideei buruz hausnartzeko eta aurreikusitako lehentasunaren arabera zerrendatzeko.

Objektuak/baliabideak aukeratzeko taldean sortuko den eztabaidak honako ezaugarri hauek eduki beharko ditu:

- Kide guztiek parte hartu behar dute.
- Objektuak aho batez aukeratuko dira (kide guztiak aukeraketarekin ados egon behar dira).

Hasierako zati horren **iraupena 15 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

Objektuak aukeratu eta gero, azpitalde bakoitzak egindako aukeraketaren berri emango du talde osoaren aurrean, eta objektu/baliabide horiek aukeratzeko egondako arrazoiak azalduko ditu. Guztia partekatu ondoren, ikasleek lekualdatze-prozesu horretan eramango luketen objektu/baliabide bakar bat aukeratzeko dute.

Dinamika horren **iraupena 35 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Saioari amaiera emateko, banaka zein taldeka objektuak/baliabideak aukeratzeko egondako zailtasunei buruz galdetuko da.

Jarduera didaktiko horren bidez, ikasleei erakutsi nahi zaie lekualdatze eta migrazio-prozesuetarako objektu pertsonalak aukeratzearen garrantzia.

Azkenik, **ebaluazio** gisa, ikasleei eskatuko zaie beste herrialde batera bakarrik joateko prozesua nolakoa izango litzatekeen hausnartzea, horrek eragingo lukeen ziurgabetasuna kontuan izanik (bueltatze datarik ez izatea, lekualdaketaarako objektu bakarra aukeratzeko, besteak beste).

Azpiatal horren **iraupena 10 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**



## 2. Migratzea noiz aukeratzen dut.

### HELBURUAK:

- Migrazio-prozesuen errealitatea ezagutzea.
- Migrazioari eta pertsona migratuei buruzko sentsibilizazioa.
- Desberdintasun sozialei buruz kontzientziatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, ikasgelako proiektorea eta ordenagailuak ikasleentzat.

**JARDUERA BURUTZEKO DENBORA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKUNTZA:** Jarduera prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Saio honen hasieran, sarrera txiki bat egingo da migrazioaren kontzeptuari buruz, eta *5560 cáscaras de naranja* bideoa ikusteko aukera egongo da.

[Sarbidea hasierako bideoa: 5560 cáscaras de naranja](#)

Sarrera bukatzeko, ikasleei parte hartzea eskatuko zaie, beren hausnarketak partekatu ditzaten. Horrela, irakasleek honako galdera hauek egin ditzakete: Zer dakigu migrazioa kontzeptuari buruz? Zer arrazoik eragin dezakete pertsonen migrazioa? Zuren inguru hurbilean migrazioa egon al da?

Dinamika horren **iraupena 10 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

#### 2. Dinamika nagusia:

Migrazioa kontzeptura lehen hurbilketa egin ostean, *5560 cáscaras de naranja* bideoa ikusiko da, eta 5 minutu inguru utziko zaizkie hausnartzeko eta ikusitakoa analizatzeko.

[Sarbidea bideo luzatura: 5560 cáscaras de naranja](#)

Atal hau bukatu eta gero, egin beharreko jarduera azalduko da; emigratu nahi duen Youssef izeneko gazte baten kasua ahots ozenez irakurriko da, eta, talde heterogeneoetan, zenbait erabaki hartu beharko dira: bidaia horren helmuga, bidaiatzeko modua eta egingo diren kilometroak. Hartutako erabakiak justifikatu beharko dira. Adibidez, helmuga herrialdea aukeratzeko, koherentzia edo motibazio bat egon beharko da, hala nola hizkuntza, kultura hurbilekoa izatea edo fisikoki hurbil egotea. Kasua irakurtzerakoan, atzean mapa interaktibo bat jarriko da (Google Maps, adibidez), kasuaren ulermena eta kokapena errazteko.

Jarraian, jardueran erabiliko den kasua aurkeztuko dugu:



*“Youssef Aljeriako mutiko bat da, migrazio-prozesu bati ekin diona: Aoulef hirian jaio zen, baina txikitatik ikusi zuen bertan zaila zela bizi-baldintza oneko etorkizuna izatea. Ikasten zuen bitartean lan egiten zuen, Europara bidaiatzeko dirua aurrezten joateko. 14 urte betetzean, lagun batzuekin, motxila batean janaria, mapa bat, gps bat eta arropa pixka bat sartu eta hiritik atera ziren. Baina, Europara heltzeko bide asko zeharkatu behar dira...”*

Hasierako kontakizuna entzun eta gero, ikasleek osatutako taldeei eskatuko zaie ordenagailuan Google maps-en sartu eta migrazio-prozesua egiteko aukeratuko luketen bidea zehazteko. Horretarako, datu hauek emango zaizkie:

- Frantziak Aljeria okupatu zuen; beraz, frantsesa ikasten dute.
- Herrialde askok ez diete migratzaileei sartzen uzten, mugak itxita dituztelako.
- Europak ez die pertsona migratzaileei legalki sartzen uzten.
- Baliabideak, dirua zein janaria, urriak dira.

Ikasleek hurrengoak apuntatu beharko dute:

- Zenbat kilometro ditu aukeratu duzuen bideak?
- Zer herrialde zeharkatuko dituzue?
- Zein da aukeratu duzuen helmuga herrialdea? Zergatik?
- Zer garraibide aukeratuko duzue? Zenbat kostatzen du?

Dinamika horren iraupena 20 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.

Ondoren, taldeek landutakoa partekatuko dute. Helburua ez da bidaia ondo planifikatzea, baizik eta bidaia planifikatzea zaila dela eta bidaia egiten dutenen errealitatea nabarmentzea. Bateratze lan horretan, zeharka hitz egin ahal izango da pertsona batek migrazio-prozesu bat egiteko dituen motibazioei buruz, hizkuntzaren, gizartearen eta abarren arabera helmuga aukeratzeari buruz eta gerta daitekeenak eragindako ziurgabetasunari buruz. Halaber, *5560 cáscaras de naranja* bideoan ikusitakoa berriz aipatu daiteke, taldeko eztabaida elikatzeko.

Gainera, denbora edukiz gero, Espainiara adingabea zela heldutako gazte migratzaile baten lekukotasuna ikusi ahal izango da:

[Sarbidea bideora: Gazte migratzaile adingabe baten lekukotasuna](#)

Dinamika horren iraupena 40 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.

### 3. Amaiera eta ebaluazioa:



Azkenik, taldeka partekatuko da, besteak beste, hurrengo gaiei buruz ikasitakoa: migrazio moten aniztasuna (ez da gauza bera premiagatik eta biziraupenagatik migrazioa egitea edo pribilegio handiagoko posizio batetik lan-arrazoiengatik migrazioa egitea) eta migrazio-prozesuekin lotuta antzemandako eta prozesu horien ondorioz agertutako zailtasunak.

Halaber, **ebaluazio** gisa, planifikatu dituzten bidaiak bilduko dira. Beharrezkoa bada, eta denbora edukiz gero, ikasleei eskatuko zaie banaka eta idatziz hausnarketa labur bat egitea, Youssefen fikziozko kasuan bezala migratzeak suposatzen duenari buruz.

Azpiatal horren **iraupena 5 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

Ondoren, jarduera osagarri bat proposatzen da, irakasleek, beren irizpidearen eta taldearen ezaugarrien arabera, arestian azaldutako dinamika baino egokiagoa izan daitekeen baloratu dezaten.

○ **Proposatutako jarduera osagarria: Zer objektu utziko genituzke atzean?**

**HELBURUAK:**

- Migrazioan eragina duten botere-ardatzak daudela jakitea.
- Kontsumoari eta ondasun materialei buruzko begirada kritikoa izatea.
- Gure egunerokoan normalizatutako baliabide/elementuei balioa ematea.
- Migrazio-prozesuekiko eta horiek egiten dituzten pertsonekiko enpatia sustatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Arbela, errotuladorea.

**JARDUERA BURUTZEKO DENBORA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKUNTZA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

**DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:**

**1. Sarrera:**

Hasteko, sarrera txiki bat egingo da migrazioaren kontzeptuari buruz. Horretarako, askotariko dinamikak erabili daitezke; irakaslearen azalpen teorikoa, aurreko *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean bildutako informazioarekin, zein ikasleak kontzeptu horretara elkarrekin hurbiltzea. Xede horretarako, gogoetazko galderak erabili daitezke, hala nola hurrengoak: Zer dakigu migrazioa kontzeptuari buruz? Zer arrazoik eragin dezakete pertsonek migrazioa? Zuren inguru hurbilean migrazioak egon al da?

Dinamika horren **iraupena 10 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

**2. Dinamika nagusia:**

Migrazio-prozesu bat egitean aukeratutako objektuak/baliabideak bezain garrantzitsuak dira, eraman ezin direlako, atzean uzten direnak.

Hori dela eta, jarduera nagusi honen helburua ikasleek migrazio-prozesuari ekiteko aukeratuko ez lituzketen objektu/baliabideei buruz hausnartzea da.

Lehendabizi, eta ikasleei lana errazteko, taldean kontakizun bat planteatuko da, jarraian deskribatuko dena. Kontakizun horretan, inguruabar jakin batzuk azalduko dira, eta ikasleek beraienak izango balira bezala hartu beharko dituzte jarduera ebazteko.

*“Iruñean bizi zara eta aspalditik ari zara lan bila. Nahiz eta lan eskaintzak egon, ez duzu Nafarroan etorkizunik ikusten, egin dituzun lanen baldintzak prekarioak zirelako. Gainera, zure inguruko pertsona askok beste leku batera bidaiatzea erabaki dute, programatuta zeukaten bizitza proiektua garatu ahal izateko. Hori dela eta, zuk ere Nafarroa uztea erabaki duzu, aukera hobeak eskaintzen dituen leku baten bila. Lan baten bila beste leku batera joango zarela badakizu ere, oraindik ez duzu azken helmuga zehaztu. Aurreztuta diru gutxi duzula kontuan hartuta, migrazio-prozesuan eraman dezakezun ekipajea prestatzen hasi zara. Hala ere, objektu edo elementu asko baztertu beharko dituzu; bidaia hasi eta gero, ezin izango dituzu erabili. Zer elementu utziko zenituzke atzean bidaia berri horretan?”*

Planteamendu hori egin eta gero, ikasleak talde txikiagoetan bananduko dira. Azpitalde bakoitzak bizitzaren etapa berri horretan atzean utziko lituzkeen 10 elementu zerrendatu beharko ditu.

Dinamika hori bukatu eta gero, azpitalde bakoitzak zerrendatutako 10 elementuak partekatuko ditu. Ondoren, irakasleak ikasleak taldeko eta banakako hausnarketa batera zuzenduko ditu; zerrenda horietan agertutako elementuen garrantzia aztertu beharko dute. Horrela, nabarmendu daiteke, alde batetik, elementu materialak ez ezik, migrazio-prozesu batean harremanak, senideak, kultura, gizartea eta abar atzean uzten direla, eta, bestetik, migratuen bizitzan hain erabakigarriak diren erabaki horiek hartzea zaila dela.

Dinamika horren **iraupena 40 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Taldeko hausnarketa gisa, dinamika nagusia egitean izandako sentrazio, emozio eta pentsamenduei buruz galdetuko zaie. Azkenik, taldean aztertuko dira ikasleek lehen eta orain, saio honetako jarduerak egin ostean, migrazio-prozesu batek dakarrenari buruz izandako pertzepzioen artean dauden desberdintasunak.

Gainera, ikasle bakoitzari itzulera-datarik gabe beste herrialde batera egindako lekualdatze bati buruzko bizipenaren inguruan hausnartzea eskatuko zaio, abiapuntu gisa gure nortasun pertsonalean eta talde-nortasunean oso errotuta dauden elementu asko nahitaez atzean uztea edo galtzea izanda.

Azpiatal horren **iraupena 5 minutukoa izango da, gutxi gorabehera.**

## II. UNITATE DIDAKTIKOA: Migrazioa globalizazioaren munduan

### Kontzeptualizazio teorikoa

Munduko edozein tokiren arteko harremanak gero eta estuagoak eta berehalakoagoak dira, eta herrialdeek gero eta elkarren arteko menpekotasun handiagoa dute. Gaur egun, munduko herrialde gehienek ezingo lukete daukaten bizimodua eta ekoizpen erritmoa mantendu herrialdeen arteko mugikortasunik egongo ez balitz. Hori dela eta, herrialdeen arteko menpekotasuna ohikoa da, eta, neurri batean, gure bizimodua egituratzen du. Gizartearen alderdi batzuetan eragina duen fenomeno horri globalizazioa deritzo.

Hala eta guztiz ere, handiak dira lurraldeen arteko aldeak, horien lan eta ekonomia garapenaren arabera. Materialak sortzeko gaien erauzketa eta erabilera (txipak egiteko mineralak, arropa egiteko kotoia, kafe edo kakao aleak...), adibidez, garapen-bidean dauden herrialdeetan egin ohi dira segurtasun berme handirik gabe, lan baldintza ezegonkorrekin, baita haur-lanaren bidez. Mundu-mailako erakunde ugari haur lana gelditzen saiatu dira eta horretarako Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Haurren lan-modu okerrenei buruzko hitzarmena (1999) bezalako tresnak sortu dira; hala ere, UNICEFek (2021) argitaratutakoaren eta beste ikerketen arabera, 160 milioi haurrek garatzen dute haur lana, bereziki Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asiako eskualdeetan.

Sortutako ondasunen zati handi bat mendebaldeko herrialdeetan edo herrialde aberatsetan merkaturatzen da. Ehungintzako multinazional handiek, adibidez, Asiako herrialdeetan kokatzen dute ekoizpena, produktuak Europako eta AEBetako herrialdeetan merkaturatzen dituzten arren.

Beti egon da munduko tokien arteko harremana eta elkarrekintza (ekonomikoa, soziala, etab.), baina azken hamarkadetan aurrerapauso handia eman du.

Munduko merkatuan arreta jartzen badugu, herrialde jakin baten egoerak beste guztiena baldintzatu dezake. Ondorioz, finantza krisiek nazioartekoa eragina izan dute.

Hala eta guztiz ere, globalizazioak baditu honako **alderdi positibo** hauek ere:

- **Teknologiaren globalizazioa.** Aurrerakuntza zientifikoak mundu osoan zehar hedatu dira.
- **Komunikazioaren eta ezagutzaren globalizazioa.** Teknologia berriek urrun dauden lekuen arteko berehalako komunikazioa ahalbidetzen dute, eta horrek sinergiak eta desberdinak diren pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu. Kulturen arteko harreman arin eta jarraituek eragin positiboa dute gizartean.
- **Globalizazio ekonomikoa.** Ekonomiaren mugimendu askea, lan-indar dibertsifikatua eta espezializatua eta ezagutza transferentzia.

Hala ere, globalizazioak ez dakar, alderdi askotan, eskubideen edo bizi-baldintzen parekatzea. Horri “globalizazio osatugabea” deritzote hainbat pertsonak; beraz, egungo globalizazioaren alderdi negatiboak agerian uzten ditu (Romero eta Vera, 2014):

- **Lan eskubideei dagokienez.** Nazioarteko Konfederazio Sindikalaren Indize Globalaren zazpigarren edizioaren arabera, 2020an zazpi urtetan izandako lan eskubideen urratzerik handiena eman zen, zeina bereziki larria izan zen honako herrialde hauetan:

Bangladesh, Brasil, Kolonbia, Egipto, Honduras, India, Kazakhstan, Filipinak, Turkia eta Zimbabwe; urte horretako txostenaren arabera horiek dira herrialderik arriskutsuenak langileentzako. Joera hori antzekoa izan zen 2021ean.

- **Teknologiaren eskuratzeari dagokionez.** Teknologia eta informazioa eskuratzeko gaitasuna oso desberdina da lurraldearen eta pertsonen egoera sozioekonomikoaren arabera.
- **Baliabide ekonomikoei dagokionez.** Mundu-mailako datuak aztertzen baditugu, erraza da baliabideen banaketan desparekotasuna dagoela ikustea. Adibide gisa, lanbide arteko gutxieneko soldata (hemendik aurrera LGS) aztertuko dugu. Eskura dauden azkeneko datuen arabera, 2022an hileroko LGS 3.351 eurokoa zen Suitzan eta 1.166,7 eurokoa Espainian. Hala eta guztiz ere, 2020an Txinan 281,3 eurokoa zen, 2019an 60,8 eurokoa Angolan, eta 15,7 eurokoa Bangladeshen (Expansión, 2022).
- **Mugei dagokionez.** Ez da pertsonen mugikortasun askerik existitzen, hau da, herrialdeen arteko lekualdaketak baldintzatuta daude.

Gainera, ekoizpen eta kontsumo sistemek eta gaur egungo bizimoduek **ingurumen-eragin** handia dute: kutsadurak, ekosistemen suntsiketak eta baliabide naturalen gehiegizko ustiatzeak planetaren oreka naturalari kalte egiten diote.

Alderdi kulturalari dagokionez, honako analisi edo teoria hauek globalizazioa kontuan hartzen dute:

- **Munduaren Cocalizazioa edo Mcdonalizazioa** (Alvira eta Duro, 1997). Mendebaldeko kultura kapitalistaren unibertsalizatzeko joerak bizi ohiturak, eredu kulturalak eta jokaera transnazionalak homogeneizatzen ditu, besteak beste. Horrek ikuspegi neoliberaletako kultura globala sortzen du, zeinak kontsumoaren eredu jarraitzen duen.
- **Glokalizazioa** (Robertson, 1995). Munduaren cocalizazioaren kontrako jarrera Glokalizazioa da, zeinak lekukoa eta globala aldi berekoak izan eta elkar birdefinitu dezaketela defendatzen duen.
- **Erresistentzia identitateak.** Manuel Castellsek, adibidez, (1998) *El Poder de La Identidad* liburuan nabarmendu zuen eta feminismoa eta ekologismoa bezalako mugimenduak biltzen ditu. Halaber, bertakoa, berezko etnia eta kultura defendatzen dituzten mugimenduak dira. Pérez-Ramírez, Zizumbo-Villarreal eta Monterroso-Salvatierra (2009), erresistentzia identitatea garatzen dela diote *“garapen eredu kapitalista batek baztertutako talde etnikoak [...] larderiazko klase batek ezarritako segregazio sozial, ekonomiko, teknologiko, politiko edo kulturalaren aurkako jarrera batekin bat datozenean eta beren desadostasuna agertzeko eta baliabideen kudeaketan parte hartzeko erak finkatzeko borroka eta erresistentzia mekanismoak defendatzen dituztenean”*.
- **Desterritorializazioa eta hibridazio kulturala.** Canclínik (2012) aipatzen duen bezala, hibridazioa kulturala gertatzen da kultura batek bere identitatea, hizkuntza, ohiturak, komunikatzeko erak etab. aldatzen dituztenean beste kultura batekin harremanetan egotean. Adibidez, anglizismoak edo Halloween bezalako ospakizunak. Laburbilduz, hibridazio kulturala kultura nahasketa da.

Mundu globalizatu batean migrazioa errealitate estruktural bat da, eta horren eragile nagusiak, ikuspuntu global batetik, honako hauek dira (Parlamento Europeo, 2020):

- **Eragile soziopolitikoak:** Pertsonen bere herrialdea utzi behar dute etnia, erlijio, arraza, sexu-orientazio edo genero dibertsitate, politika edo kulturagatiko jazarpena dela eta. Eragile garrantzitsua gatazka armatuetatik ihes egitea da.
- **Gizaldeko eragileak:** Goseteak, gerrak edo oinarritzko osasun zerbitzuak jasotzeko ezintasuna horietako batzuk dira.
- **Eragile demografiko eta ekonomikoak:** Lan arauekin, langabeziarekin eta osasun edo hezkuntza zerbitzuak eskuratzeko aukerarekin, zeinak hiri inguruetan eskuragarriagoak diren, lotuta daude.
- **Arrazoi ekonomikoak:** Lan falta eta lan aukera hobeak.
- **Ingurumen-eragileak:** Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera, *“ingurumen-migratzaileak dira euren bizitzan edo bizimoduan eragin negatiboa duten bat-bateko edo mailakako ingurumen aldaketak direla eta beren ohiko etxea, aldi baterako zein betiko, utzi behar dutenak euren herrialdeko beste toki batera edo atzerrira joateko”*.

## Jarduera proposamenak

### 1. Orain dena nahastuta badago... Nongoa naiz?

#### HELBURUAK:

- Globalizazioaren eta horrek gure bizitzan duen eraginaren inguruko ezagutzak eskuratzea.
- Analisi kritikorako gaitasuna garatzea.
- Kultura dinamikoa dela eta kultura trukea onartzen duela ulertzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, proiektagailua, arbela, orriak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Lehenengo hurbilketa honetan hurrengo bideoa ikustea proposatzen da, zeinean globalizazio kulturalarekin zerikusia duten gaiak azaltzen diren, ikasleei errealitate horren gaineko testuingurua emateko.

*Bideoa: ¿Qué es la globalización cultural?*

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

##### 2. Dinamika nagusia:

Bideoa ikusi eta gero jarduera nagusia garatuko da. Horretarako, eskainiko zaien testu laburra erne eta banaka irakurtzeko eskatuko zaie ikasleei, horren amaieran kokatutako galdera zintzotasunez erantzun ahal izateko.

*“Kaye neska palestinarra da, loredun soineko bat eta bota beltzak daramatza, cumbia eta k-pop-a entzutea gustuko du, laranja Fanta edaten du eta hanburgesa beganoak jaten ditu, euskaraz hitz egiten du bere familiarekin, baina koreera ikasten du eta espainieraz irakurtzen du, eta neska lagun ijito bat dauka. Iruñako unibertsitatean ikasten du, eliza katolikora doa igandeetan, baina ikasturte hasieran beti eskatzen dio igarle bati kartak irakurtzeko, bere etorkizuna nolakoa izango den jakiteko. Instagram, Tiktok, eta Whatsapp erabiltzen ditu eta azken belaunaldiko mugikorra du. Lanaldi erdiko lana du Iruñan, baina etengabe doa Teruelera bere familia bisitatzerara. Hori guztia kontuan hartuta, neskak palestinarra izaten jarraitzen duela uste duzue? Zergatik?”*



Ondoren, erantzunak eta egindako gogoetak talde osoarekin partekatuko dira eta eztabaida bat garatuko da. Talde eztabaida dinamizatzeko irakasleak honako galdera hauek erabili ditzake:

- Globalizazioaren ezaugarriek eta migratu izanak norberaren identitate kulturalen eragina dute? Eta tokiko biztanleriarenean? Nafarroak bere identitatea galduko luke?
- Identitate kulturalak, ohiturak, usadioak, ideiak, etab. globalizazioaren eraginez aldatzen badira, identitate kultural berriak sortuko dira? Eraldatu edo aldatuko dira?
- Zer pentsatzen duzue Kayari buruz? Inkongruentea dela uste duzue?

Dinamika horren iraupena **35 minutu ingurukoa** izango da.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Amaitzeko, landutakoa eta jardueran zehar ikasitakoa kontuan hartuta, ikasleek euren buruak deskribatu beharko dituzte neska palestinarraren testua eredutzat hartuta. Ondoren, taldearekin partekatuko da identitate kulturala, baita zer nolakoa eragina duen globalizazioak norberarengan. Ebaluazioa egiteko ikasleek sortutako materiala batuko da.

Azpiatal horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Kontsumoaren gizartea.

### HELBURUAK:

- Ekoizpen sistema kapitalistaren ikuspegi zabala jasotzea.
- Gure kontsumo sistemaren inguruko gogoeta egitea.
- Globalizazioaren eta horrek gure bizitzan duen eraginaren inguruko ezagutzak eskuratzea.
- Analisi kritikorako gaitasuna garatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, proiektagailua, arbela, orriak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Jarduera honekin hasteko, kontsumoaren eta gure gizartearen globalizazioaren inguruko gaia laburki aurkeztuko da. Horretarako, irakasleak *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili edo aurkezpena ikasleen ekarpenekin sortu dezake.

Dinamika horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

#### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera honetan hiru pertsonako taldeak osatuko dira. Talde bakoitzari eguneroko bizitzako jarduerekin (etxearen garbiketa, higiene pertsonala, sukaldaritza, ikasketak, lana, garraioa, etab.) zerikusia duen gai bat emango zaio. Talde bakoitzak dagokion gaia daukanean, gaiarekin lotura duten kontsumo produktuen zerrenda labor bar osatuko da. Jarduera honen helburua kontsumo ohiturak, mendebaldeko kulturak gauzatzen duen ingurumenaren manipulazioa, baliabideen globalizazioa eta ekoizpen sistemak, besteak beste, lantzea da. Zerrendan gehitu diren produktu guztiei buruz honako galdera hauek erantzun beharko dira.

- *Zein herrialdetik dator?*
- *Beste herrialde batetik badator, jatorrizko herrialdean ere kontsumitzen da?*
- *Beste herrialde batean egiten bada, hemen egin ezin delako da?*
- *Kontsumitu behar dugun produktu bat da?*
- *Ba al dauka eraginik naturan?*
- *Orokorrean, zein eragin dauka produktu horrek gure gizartean eta jatorrizkoan?*

Jarduera hori amaitzean, talde txikietan ateratako ondorioak talde handiarekin partekatuko dira eta zuzendutako eztabaida bat garatuko da honako galdera hauek kontuan hartuta.

- *Gure kultura, zeinean kontsumoa hain garrantzitsua den, gizartearentzat kaltegarria izan daiteke? Eta naturarentzat? Ondorio horiek gure bizimoduan epe laburrean, ertainean eta luzean duten eragina taldearekin eztabaidatu daiteke.*
- *Teorian, kontsumitzen ditugun produktu asko beste herrialde batzuetan egiten direla ikusiko da; normalean, lan baldintza ezegonkorak dituzten herrialdeetan. Talde eztabaida horren bitartez enpresek biztanleriaren eta produktuak sortzen dituen herrialdearen ezaugarri kulturalak errespetatzen dituzten hausnartu nahi da. Ehungintzako marka handiek beraientzat lan egiten duen biztanleriaren ezaugarriak ezagutzen eta errespetatzen dituzte? Garrantzitsua iruditzen zaie beren enpresan langileei lan baldintza onak eskaintzea?*

Dinamika horren iraupena **30 minutu ingurukoa** izango da.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Amaitzeko, jarduera nagusian eztabaidatutakoa hurrengo bideoarekin lotu nahi da.

[Bideoa: Sociedad de consumo y obsolescencia programada: combinación que amenaza la existencia](#)

Horretarako, eztabaida bat sortuko da eta gaur egungo kontsumo joerak ingurunean eta pertsonengan duen eragina saihesteko aukerak eta ideiak proposatuko dira.

**Ebaluazioa** egiteko, arbelean idatzitako ideiak batuko dira.

Azpiatal horrek **20 minutu inguruko iraupena** izango du.

Jarraian, jarduera proposamen gehigarri bat aurkeztuko da irakasleak erabaki dezan, bere iritzia eta taldearen arabera, horren garapena aurreko dinamika baino egokiagoa den.

○ **Jarduera proposamen gehigarria: Nola konpondu ditzaket gatazkak?**

**HELBURUAK:**

- Gure kontsumo sistemaren inguruko gogoeta egitea.
- Analisi kritikorako gaitasuna garatzea.
- Aberastasun kulturalaren garrantziaz ohartzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, proiektagailua, arbela, orriak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta jarduera antolatzea.

**DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:**

**1. Sarrera:**

Lehenengo hurbilketa egiteko hurrengo bideoa ikustea proposatzen da.

*Bideoa: La lucha por la dignidad del pueblo indígena de Santa Cruz de Barillas*

Bideo horretan garapen ekonomiko kapitalistaren, eta hori garatzen den lurretan bizi diren pertsona eta taldeen kulturen artean sortzen diren arazoak azaltzen dira. Bideoa ikusi ondoren, ikasleek euren gogoetak partekatuko dituzte. Irakasleak honako galdera hauek erabili ditzake talde eztabaida dinamizatzeko:

- *Zer ikusi dugu bideoan? Non gertatzen ari da?*
- *Zein da Santa Cruz de Barillasen sortu den arazoa edo gatazka? Zeintzuk dira gatazka honetan dauden bi aldeak?*
- *Nongoa da enpresa? Zergatik joan dira lurralde horretara? Zergatik uste du enpresak bere jarduera onuragarria dela?*
- *Zergatik dago biztanleria enpresa horren kontra? Biztanleriaren kultura errespetatzen da?*
- *Zer nolako konponbidea proposatu da? Zer egiten ari da gobernua gatazka konpontzeko?*
- *Enpresak kultura eta biztanleria errespetatzen dituela uste duzue?*
- *Ba al dauka komunitatearen parte ez den enpresa batek jarduera ekonomikoak garatzeko eskubidea, komunitate horretako biztanleria aurka egon arren?*

Dinamika horrek **15 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Dinamika nagusia:

Azpiatal honetan ikasleak bi taldetan banatuko dira eta 1854an Seattle buruzagiak (larrugorria) AEBetako presidenteari idatzitako gutun ezaguna banatuko zaie. Gutun horretan Seattle buruzagiak, Amerikako hainbat tribu indigenetako liderrak, Estatu Batuetako presidente Franklin Piercek “Larrugorri” izeneko Amerikako herri indigenen lurraldeak erosteko egindako eskaintzari erantzun zion.

Jarraian, Seattle buruzagiaren gutuna eskuratzeko bi esteka daude, bata gutuna irakurtzeko eta bestea horren inguruko bideo bat ikusteko. Bi aukera eman dira irakasleak edo taldeak erabaki dezan zein nahiago duen.

[Seattle buruzagiaren gutuna \(idatzizko dokumentua\)](#)

[Bideoa: Seattle buruzagiaren gutuna](#)

Seattle buruzagiaren gutuna irakurri ostean, talde bakoitzari erantzun bat idazteko eskatuko zaio, alde biak pozik utziko dituen konponbide bat aurkitzeko helburuarekin. Jardueraren azalpena bukatu ostean, proposatuko dituzten konponbideak idazteko zenbat denbora izango duten esango zaie, 15 minutu inguru.

Denbora bukatzean, talde bakoitzak Seattle buruzagiari emango liokeen erantzuna azalduko du. Modu horretan, eztabaida irekiko da, talde osoarekin, kultura autoktonoen eta horiek ordezkatzen dituzten pertsonen duintasunaren inguruan. Eztabaida dinamizatzeko, irakasleak honako galdera hauek erabili ditzake:

- *Zeintzuk dira Swaminsh indiarren ezaugarri kulturalak? Nolako da haien ekonomiaren ikuskera? Kultura ekonomiari lotuta al dago?*
- *Noahk gizon zuriek natura ulertzeko duten era eta nola tratatzen duten aipatu zuen behin baino gehiago. Gutunean aipatu zituen gizon zuriaren jokaerek gaur egun daukagun egoera klimatiko eta ingurumen-egoerarekin zerikusirik dutela uste duzue?*
- *AEBetako presidentek Swaminsh indiarren kultura kontuan hartu zuen? Haien kultura errespetatu zuen? Zein zen AEBetako presidentearen kultura?*

Dinamika horren iraupena **30 minutu ingurukoa** izango da.

## 3. Amaiera eta ebaluazioa:

Amaitzeko, banakako eta taldeko hausnarketa labur bat egingo da azaldutakoa bezalako egoera bat bizitzeak gudan duen eraginaren inguruan.

**Ebaluazioa** egiteko, ikasleek sortutako materiala batuko da.

Azpiatal horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

### III. UNITATE DIDAKTIKOA: ARRAZAKERIA: ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK

#### Kontzeptualizazio teorikoa

Arrazaren kontzeptua XVI. mendean sortu zen, baina goiena jo zuen XIX. mendean (ilustrazioaren amaieran). Termino horren sorreraren ostean hasi zen arrazakeria, nahiz eta Antzinaroan eta Erdi Aroan dagoeneko pertsona batzuk gizartetik baztertzen ziren ezaugarri jakinak izateagatik (Geulen, 2010). Arrazismoa talde sozial batzuek beste batzuk menderatzeko, eta horren ondorioz pribilegioak eskuratzeko, helburuarekin burutzen den fenomeno da. Troyna eta Carringtonen (1990) arabera, *“nagusitasun etnikoaren dogma arrazistek hautatutako ezaugarri fisiko edo kulturalen bidez bereizitako taldeen botere banaketa indartzen duten jardute sozialak legitimatzen dituzte”*. Hori dela eta, arrazakeria kulturak sortutako jokabide arau bat da, pertsonen sinesmen sistemek mantentzen dutena; hortaz, alda daiteke (Geulen, 2010).

Arrazakeria forma askotakoa izan daiteke gure ingurunean:

- **Lan** arloan, agerikoa da migratzaileen eta herrialde horretako pertsonen arteko lan-desparekotasuna. Ondorioz, kualifikazio gabeko eta lan baldintza ezegonkorrak dituzten lanak (etxeko garbitzaile eta pertsona adindunen zaintzaile profesionalak, baita aldi baterako lana landan, besteak beste) migratzaileek garatu ohi dituzte, zeinak orokorrean herrialde pobretuetatik datozen (Faundez, 2005).
- **Gizarte** arloan, batzuetan, aniztasun kulturala debaluatzen duten jarrerak ematen dira. Horrek erresistentzia eta elkarrenganako aurreiritziak sortzen ditu. Lekuko komunitateek migratzaileak baztertzen dituzte, eta migratzaileak banandu egiten dira eta beste taldeekin ez erlazionatzeko jokaera hartzen dute. Modu horretan, ezin dira gizartearen parte izan kultura-aniztasunaren ikuspegitik (Aguilar-Idañez, Herrera, Cano, Avaria, Avalos eta Pefaur, 2012).
- **Politika eta legearen** arloetan, Espainiako immigrazio legeetan espainiar gizartean etnia baino kontuan hartzen ez duten segmentuak antzematen dira. Hori dela eta, arrazializazioarako edo etnifikazioarako joera dago lan arloan, adibidez, eta beste herrialdeetako migratzaileak gizartearen ertzetan baztertzen dira (Gimeno, 2004).

Garrantzitsua da aipatzea, arrazakeriari dagokionez, bestelako indarkeria formetan bezala, pertsona bat diskriminazioaren objektu izatea eragiten duten hainbat aldagai daudela. Honako hauek aipatu daitezke: maila soziala (behe-mailakoa dena diskriminazio handiagoa jasan dezake), generoa (emakumeek baldintza edo egoera zailagoei aurre egin beharko dieten prozesu migratzailean), sexu-orientazioa eta normatiboak ez diren identitate edo adierazpenak (zisheteroak ez diren pertsonen zisheteroak direnak baino indarkeria egoera gehiago jasango dituzte), besteak beste (Montenegro, Herrera eta Torres-Lista, 2020).

Kulturarteko elkarriketa baterako bidea hartu ahal izateko ezinbestekoa da estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioa nola sortzen eta mantentze diren definitzea:

#### Estereotipoa

Literaturan asko dira *estereotipo* kontzeptuaren definizioak. Yzerbyt eta Schadronen (1996) arabera, estereotipoak honako hau dira: *“pertsonen ezaugarriei, orokorrean nortasun bereizgarriei, buruzko sinesmen multzo partekatu bat, baina baita ere pertsona talde baten*

*ohiko jokabideei buruzkoa*". Gainera, Malgesini eta Giménezek (2000) estereotipoak "errealitatea sinplifikatzeko mekanismo kognitiboak" direla gehitu zuten. *Ahalegin mentala ekonomizatzeko ezarritako sinplifikazio horiek desitxuratzeari sortu dezakete.*

Definizioaren kasuan bezala, estereotipoen jatorriari buruzko hipotesi asko daude. Onarpen handia izan duen azalpenetako batek estereotipoak gure funtzionamendu mentalaren emaitza direla dio. Hipotesi horrek gure mekanismo kognitiboa neurritz kanpoko irudi, pentsamendu eta orokortzeekin lan egiteko prestatuta dagoela azaltzen du, eta ez datorrela benetako ingurune fisiko eta sozialaren konplexutasunarekin bat. Hori dela eta, gure mekanismo kognitiboa jasotzen dituen kanpo-estimuluak hautaketa eta kategorizazioaren bidez sinplifikatuz funtzionatzen du (Movimiento asturiano por la paz, 2012).



3. irudia. Aurreiritziei buruzko bineta (Ajuntament de Barcelona, d.g.)

Zaila da estereotipoak deseraikitzea, sinesmen eta jarrerren nahaste bat dira eta. Horregatik, estereotipo jakin bat egokituta duen pertsona edo taldearekin harremana izatea lagungarria izan daiteke horrelako ideiak desagerrarazteko. Estereotipo kulturalen kasuan, kulturarteko harremanaz gain, autoanalisi ere gai hori lantzeko era eraginkorra da.

### Aurreiritzia

Aurreiritziak pertsona batek talde edo egoera baten gainean dituen interpretazio negatibo eta goiztiarrak dira, eta estereotipoetan oinarritzen dira (SocialZink, 2019).

Aurreiritziak nola sortzen diren ulertu ahal izateko, horretan eragina duten hainbat mekanismo edo egoera kontuan hartu behar dira. Halaber, kategorizazioaren bidezko prozesu psikologiko kognitiboak daude, zeinak prozesu afektibo jakinei lotuta dauden; besteak beste, talde edo gizarte testuinguru batean partekatzen diren sentimendu negatiboak. Hau da, gizarte jakin batek ezarritako arau eta legeek prozesu psikologikoetan eragina dute (Molero, Navas eta Morales, 2001).


Estereotipoa bezala, aurreiritzia sinesmen eta jarrera sistema batean errotuta dago, eta zaila da hori desagerraraztea. Ezagutza gabeziak eta mesfidantza jarrerak aurreiritziari eustea eragiten dute (Aguilar-Idañez et al., 2012).

## Diskriminazioa

Diskriminazioa pertsona edo talde bati adinagatik, genero identitateagatik, dibertsitate funtzionalagatik edo jatorri etniko-kulturalagatik, besteak beste, zuzendutako jokaera desberdina da (SocialZink, 2019).

Arrazakeria diskriminazio forma bat da, eta horren ardatz nagusia “arraza” bezala ulertutako taldeen ebaluazioaren, iraupenaren eta gailentasunaren gatazka da (Geulen, 2010).

Hiru kontzeptu horien arteko interakzioa hurrengo irudian irudikatuta dago. Estereotipoak, pertsona edo talde baten gaineko sinetsmen negatiboak, jarrera kaltegarri bat sortzen du. Horrek pertsona edo talde horri buruzko iritzi negatibo bat eragiten du, eta, ondorioz, jokaera diskriminatzailea (SocialZink, 2019).



4. irudia. Kontzeptuen erlazioaren eskema (Berezko lanketa, 2022)



## Jarduera proposamenak

### 1. Errealitatea vs. Interpretazioa.

#### HELBURUAK:

- Arrazakeria, estereotipo eta aurreiritziei buruzko ezagutza eskuratzea talde hausnarketa eta eztabaiden bidez.
- Kontzientzia kritikoa lantzea.
- Pertsonarteko komunikazio trebetasunak hobetzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Banako txartelak baieztapen bakoitzarekin, kolorezko zinta gunea mugatzeko, arbela, orriak, post-itak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Baieztapenen zerrenda prestatzea (*Ikusi adibidea hemen: [1. eranskina](#)*) taldearen arabera. Egindako baieztapenak txarteletan islatzea, txartela bakoitzak baieztapen bakarra izango du. Tokia eta taldea antolatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Lehenengo, *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean aurkeztutako funtsezko kontzeptuak (estereotipoa, aurreiritzia, arrazakeria) laburki azaldu eta definituko dira. Ondoren, ikasle bakoitzari bi post-it emango zaizkio eta estereotipo bat eta aurreiritzi bat idazteko eskatuko zaio; adibide bat emango da lagungarri gisa. Adibidez: estereotipoa, “*Emakume arabiar guztiek hijaba daramate*”; eta aurreiritzia, “*Immigranteek lana kentzen digute*”.

Dinamika horrek **15 minutu inguruko iraupena** izango du.

##### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera nagusi honetarako gune garbi bat utziko da ikasgelaren erdian eta erditik zatituko da kolorezko zinta batekin, adibidez. Horrela, ikasgelaren erdiak *errealitatea* irudikatuko du eta beste erdiak *interpretazioa*.

Ikasleak eta dinamizatzailerak alde batera kokatuko dira. Dinamizatzailerak eskura edukiko ditu egindako baieztapenak idazteko adina txartela eta ikasleei banatuko dizkie.

Banan-banan, ikasleek euren baieztapenak ozenki irakurriko dituzte eta ikasgelaren alde batean edo bestean kokatuko dira, horrela euren baieztapena interpretazio bat edo errealitatea den uste duten adieraziko dute. Ikasle batek parte-hartzen duen bakoitzean, *errealitatearen* aldean zein *interpretazioaren* aldean kokatu bada ere, bere erabakia laburki eztabaidatuko da. Ikasleek aiez eta iritziz aldatu ahal izango dute talde hausnarketaren arabera. Profesionalek eztabaida zuzenduko dute, eztabaida zintzoa izan dadin, eta oharrak eman eta ekarpenak egingo dituzte azalduko diren gaien inguruan.



Jarduera zuzenduko duen pertsonak taldearentzat egokienak diren baieztapenak aukeratuko ditu.

Dinamika horren iraupena **30 minutu ingurukoa** izango da.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

**Amaitzeko**, minutu batzuk erabiliko dira estereotipoak eta aurreiritziak zer diren eta zer nolako lotura duten jokaera arrazistekin era askean eztabaidatzeko. Arrazakeria beste indarkeria forma batzuekin alderatuko da ere, matxismoarekin eta klasismoarekin, besteak beste.

**Ebaluazioa** egiteko ikasleek idatzizko hausnarketa bat egin beharko dute estereotipoak eta aurreiritziak agertzen dituen adibide edo egoera bati buruz.

Azpiatal horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Batera loratzen.

### HELBURUAK:

- Estereotipo eta aurreiritzi kontzeptuak identifikatzea eta ulertzea.
- Gure erlazionatzeko eran dauden estereotipo eta aurreiritziak identifikatzea.
- Arrazakeria formen iraunaraztean dugun ardura gure gain hartzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** paper jarraitua, post-itak, errotuladoreak, kolorezko arkatzak, blue tack-a/zinta itsasgarria. Arbela, errotuladorea.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Lehenengo, estereotipo eta aurreiritzi kontzeptuak laburki azalduko dira, baita zer nolako lotura duten arrazakeria formekin. Horretarako, irakasleak *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili edo aurkezpena ikasleen ekarpenekin sortu dezake.

Gai honetan sakontzen hasteko, inguratzen gaituzten errealitateak ulertzeko eta sinplifikatzeko egiten dugun kategorizazioa (estereotipoak sortzen dituen) azalduko da, besteak beste; baita nola bihurtu daitezkeen estereotipo horiek aurreiritzi (pertsonek edo talde sozialei buruzko aldez aurretik pentsatutako ideia negatiboak), zeinak jokaera diskriminatzaileak sortu ditzaketen "beste pertsonengan". Estereotipo eta aurreiritziak desberdinak direla erabakitzen dugun pertsona eta taldeekin distantzia soziala mantentzen dugunean sortzen dira.

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

#### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera nagusirako, lehenengo, azpitalde txikiak osatuko dira, eta taldeak ideia-jasa bat egingo du estereotipo, aurreiritzi, jokaera arrazista eta pertsona migratzaileek jasaten dituzten jokabide diskriminatzaile horiek ekiditeko. Ekarpeneak kolorezko post-itetan islatuko dira.

Dinamikaren lehenengo zatia bukatu ostean, azpitaldeetan egindako ekarpenak partekatuko dira. Horretarako, ikasgelan horma-irudi handi bat jarriko da eta bertan honako hauek marraztuko dira: hodeiak (zeinak pertsona migratzaileei buruz ditugun uste negatibo eta aldez aurretik pentsatutako ideiak irudikatuko dituzten), euri tantak (pertsonek miratzaileen aurkako jokaera diskriminatzaile behagarriak), eta loreak edo landareak (ikasleen ideiak migratzaileen aurkako estereotipo, aurreiritzi eta jokaera diskriminatzaile horiei aurre egiteko).

Dinamika horren iraupena **40 minutu ingurukoa** izango da.

#### 3. Amaiera eta ebaluazioa:



Amaitzeko, gaiaren eta egindako lanaren inguruko hausnarketa egingo da. Egiteko zaila denez, behar beste denbora erabiliko da zalantzak argitzeko eta galderak erantzuteko. Oso positiboki baloratuko da analisi lanean eta hobetzeko proposamenak egitean egindako ahalegina, eta ikasleen gaitasuna indartuko da.

**Ebaluazioa** egiteko, ikasleek egindako irudia jasoko da.

Azpiatal horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

Halaber, jarduera proposamen gehigarri bat aurkeztuko da irakasleak erabaki dezan, bere iritzia eta taldearen arabera, horren garapena aurreko dinamika (Batera loratzen) baino egokiagoa den. Hurrengo jardueraren garapenerako taldearen eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutu beharra dago, hausnarketarako, pentsamendu kritikorako eta gatazka konponbiderako gaitasun handia beharrezkoa izango baita.

#### ○ **Jarduera proposamen gehigarria: Deseraiki dezagun arrazakeria**

##### **HELBURUAK:**

- Aurreiritzi, estereotipo eta arrazakeriarekin lotutako jokabideen inguruan hausnarketa egitea.
- Umorea ekintza sozialerako eta politikorako tresna izan daitekeela ulertzea.
- Gizarte errealitatearen inguruko pentsamendu kritikoa eta irudimena sustatzea collage bat sortuz, tresna digital baten bidez zein eskuz.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, orriak, errotuladoreak, aldizkariak, egunkariak Arbela, errotuladorea.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Materiala prestatzea. Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

##### **DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:**

###### **1. Sarrera:**

Lehenengo, estereotipo eta aurreiritzi kontzeptuak laburki azalduko dira, baita zer nolako lotura duten arrazakeria formekin. Horretarako, irakasleak *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili edo aurkezpena ikasleen ekarpenekin sortu dezake.

Gai honetan sakontzen hasteko, inguratzen gaituzten errealitateak ulertzeko eta sinplifikatzeko egiten dugun kategorizazioa (estereotipoak sortzen dituena) azalduko da, besteak beste; baita nola bihurtu daitezkeen estereotipo horiek aurreiritzi (pertsonek edo talde sozialei buruzko alde aurretik pentsatutako ideia negatiboak), zeinak jokaera diskriminatzaileak sortu ditzaketen "beste pertsonengan". Estereotipo eta aurreiritziak desberdinak direla erabakitzen dugun pertsona eta taldeekin distantzia soziala mantentzen dugunean sortzen dira.

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

###### **2. Dinamika nagusia:**

Jarduera nagusi hau egiteko ikasleak azpitalde txiki eta orekatuetan banatuko dira. Dinamikaren helburua, era digitalean edo eskuz, arrazakeria deseraikitzen duen bineta bat egitea izango da. Jarduera azaltzeko eta egiteko, adibide gisa erabili daitezkeen bi bineta daude honako bi esteka hauetan:

[Lehenengo adibidea: Umore grafikoa \(Amnistía Internacional, d.g.\)](#)

*Bigarren adibidea: Binetak (Comisión Europea, 2001)*

Alde batetik, jarduera hau tresna digitalen bidez egiten bada, binetak sarean erabilgarri dagoen edozein baliabiderek egin daitezke (aldizkariak eta irudiak, besteak beste), eta Photoshop bezalako tresnak ere erabili daitezke binetak maketatzeko.

Bestalde, jarduera hau eskuz egin nahi duten taldeetan beharrezko materiala eskainiko zaie ikasleei: aldizkariak, egunkariak, kartulinak eta irudiak, adibidez. Bi lan metodologia horiek eskaintzearen helburua ikasleei dituzten ideiak ahalik eta hobekien garatu eta islatzeko askatasuna eta erraztasuna ematea da.

Dinamika horren iraupena **40 minutu ingurukoa** izango da.

**3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Amaitzeko, talde bakoitzak egindako binetak batuko dira. Gai horren inguruko sentsibilizazioa lantzeko, binetak ikastetxean ikusgai jartzea proposatu daiteke. Modu horretan, ikastetxe osoko ikasle eta irakaslek jarduera hori ikusteko aukera izango lukete, eta kulturarteko sentsibilizazio garatzeko helburua ikastetxe osora hedatuko litzateke.

**Ebaluazioa** egiteko, ikasleek sortutako materiala batuko da. Gero, ikasleek txandaka esango dute, hitz bat edo bitan, jardueran zehar pentsatu edo sentitu dutena.

Azkeneko zati horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

## IV. UNITATE DIDAKTIKOA: Feminismoa eta kulturartekotasuna

### Kontzeptualizazio teorikoa

Feminismoa, nahiz eta ez zen mugimendu gisa XVIII. mendera arte formalizatu, historian zehar emandako emakumeen zapalkuntzaren aurkako borroka guztiak biltzen ditu. XVIII. mendearen amaieran Olympe de Gouges, ilustrazio frantses betean, *Emakumeen eta herritarren eskubideen deklarazioa* argitaratu zuen, zeinean gizonen eta emakumeen arteko eskubide zibilen berdintasuna aldarrikatu zuen. Hainbat kausa sozialen alde militatu izanagatik, esklabotzaren abolizioaren alde, adibidez, gillotinatu egin zuten (Siess, 2005).

Deklarazio horren argitalpenaren ostean asko dira borroka feministaren adibideak, mugimendu sufragista, adibidez. Mugimendu horrek eragin handia izan zuen Erresuma Batuan, non emakumeak boto eskubidearen alde eta gizonen eta emakumeen arteko soldata desparekotasunaren aurka borrokatu ziren mendebaldeko industrializazio betean; modu horretan, emakume eta langile-klasekoa izatea zapalketa bikoitza suposatzen zuela ikusgai bihurtu zuten (Pacheco, 2012).

AEBetan, Sezesio-gerra betean, esklaboen berdintasunaren eta askatasunaren alde borrokatzen zuten mugimenduak ezagutzera eman ziren, eta arrazismoa, generoaz gain, beste zapalketa ardatz bat zela salatzen zuten emakume beltzen ahotsak publikoki entzun ziren (Medrano, 2018).

Hau da, XX. mendean jada feminismoak generoa ez ziren, baina emakumeengan eragin zuzena zuten, beste gai batzuk ere aldarrikatu zituen: klase desparekotasunean oinarritutako ekoizpen sistema, eta sistema kolonialista, zeinak pertsona zurien eta arrazializatuen artean desparekotasun handiak ezartzen zituen (Medrano, 2018).

1949an Simone de Beauvoirrek *Bigarren sexua* argitaratu zuen, bertan “emakume subjektuaren” analisi historiko bat egin zuen eta “emakume” izateak zer esan nahi duen eztabaidatu zuen (eta, ondorioz, “gizon” izateak). Simonek genero identitatea osatzen duten oinarriak zalantzan jarri zituen, garai hartara arte soilik biologikoa zen ikuspegi batetik, eta identitate hori sortu eta eraldatzen dela adierazi zuen. Kulturari dagokionez, kultura gehienetan ageri den osagai bat identifikatu zuen: emakumea da “bestearen” zaintzaren rola hartzen duena eta besteren beharretara moldatzen dena.

Argitalpen horrek egungo mugimendu feministaren oinarriak ezarri zituen, zeinean generoa etengabe aldatzen den **konstruktua sozial** bat dela ulertzen den.

Hortik aurrera, mugimendu feministak nabarmentze dituen berdintasunik ezaren ardatzak egituratzen dituen konstruktua bat identifikatu eta zehaztu zen: **patriarkatua**. Lerner (1986) honela definitzen du patriarkatua “*gizonek familiako emakume eta haurren gainean duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa, gizartean orokorrean ematen den nagusitasuna*”. Pribilegioak eta zapalketa sozialak mugatzen dituen sistema hori gizabanakoek ezarritako sistema bat da (Amorós, 2005), zeinak sistemak berak moldatzen dituen. Nolabait, pertsona gehienok osatzen dugu sistema hori eta horren partaide gara; beraz, guztion erantzukizuna da horren erabilera.

Hortaz, mendebaldeko feminismoak mendeak daramatza patriarkatuak sortutako desparekotasunen aurka borrokatzen, baina generoa ez da zapalketaren ardatz bakarra; desiraren orientazioa, klasea, arraza, kultura, adina, gaitasun fisiko eta psikologikoa, etab.

subjektu sozialean eragin zuzena duten ardatzak dira. Zapalketa sisteman **interseksionalitatea** dago (Cubillos, 2015).

Avtar Brahk (1996) azaldu zuen bezala *Interseksionalitatearen garrantzia ikerketa feminista* artikuluan: *“gaur egun zabalki onartuta dago gizon europarraren asmatzea, mendebaldeko pentsamendu sozialaren eta politikoaren subjektu unibertsal gisa, “besteak” (emakumeak, gay eta lesbianak, indigenak, pertsona arrazializatuak, langile-klaseak etab.) taldearen aurrean definituz egin zela. Gizon europarraren irudiaren nagusitasunak harreman hierarkiko korapilatsuak sortu zituen “besteak” anitz horrekin”.*

Oso desberdinak dira maila sozio-ekonomiko ona duen emakume zuri baten eta maila sozio-ekonomiko ezegonkor bat duen emakume arrazializatu baten bizi-baldintzak. Emakume arrazializatuak, edo beste gizarte batera migratu duenak, askotariko diskriminazioak pairatzen ditu (Cubillos, 2015).

Mugimendu feminista zuri batzuek ez dute beti diskriminazio hori aitortzen. Ondorioz, diskriminazio hori salatzen duten askotariko mugimendu feminista kritikoak, beltzak, dekolonialak, indigenak eta antiarrazistak sortu dira, mendebaldeko kultura zurien lidergopean dauden herrialde eta ekonomiek patriarkatuaren bidez boterea erabiltzen duten mundu batean.

Mendeko kulturen aurkako indarkeria salatzen duten mugimenduen artean **feminismo deskoloniala edo dekoloniala** dago, *“hazten eta heltzen ari den mugimendua, zeinak norabide*



5. irudia. Feminismo dekoloniala (*Afroféminas*, 2021)

*mendebaldar, zuri eta burges batetik egindako feminismoaren proposamen politikoaren eta teoriaren errebisionista dela aldarrikatzen duen.”* (Espinosa-Miñoso, 2014). Lugonesek (2008) mugimendu hori genero kolonialitatea edo genero sistema moderno/koloniala izendatu zuen; interseksionalitatearen kontzeptua ezagutzera eman nahi du, eta feminismo hegemonikoak (edo zuriak) egungo munduan emakumearen errealitate sozialaren gainean egiten duen analisiaren kritika sakona egiten du.

Kritika horren bidez, Montanarok (2016) adierazten duen bezala, erresistentziako mugimendu feminista indigenak sortu dira Latinoamerikan. Mugimendu horiek emakumea eta pertsona arrazializatua izateagatik zapalketa bikoitza pairatzen duten menpeko emakumeen ahotsak biltzen dituzte, eta esparru publikoetan ikusgai ez dauden emakume askoren baldintzen prekarizazioa (etxe-garbitzaile eta etxeetan bizi diren zaintzaileak, etab.) ezagutzera ematen dute.

Hortaz, kulturarteko gizarte bateratua lortzeko errealitate hori kontuan hartzea, eta emakume migratzaileek, edo kultura hegemonikoaren parte ez direnek, pairatzen duten zapalketa bikoitza eta mendekotasuna aitortzea beharrezkoa da.

### Mugimendu migratzaileen feminizazioa

Mundu mailan, emakume migratzaileen proportzioak behera egin du azkeneko 20 urteetan, 2000an % 49,4koa zen, eta 2020an % 48,1ekoa (Naciones Unidas, 2020).



Espainian, NBEren arabera, gizon migratzaile baino emakume migratzaile gehiago daude, migratzaileen guztizkoaren % 52,26 dira (Expansión, 2019).

Nafarroan, Espainiako beste erkidego batzuetan bezala, emakume migratzaileen zenbatekoak nabarmenki egin du gora azkeneko 20 urteetan.

	2000			2020		
	MUJERES	HOMBRES	TOTAL	MUJERES	HOMBRES	TOTAL
OTROS PAÍSES	950	1.446	2.396	9.667	10.454	20.121
ESTADO	39.922	38.765	78.687	39.351	39.073	78.424
<b>TOTAL</b>	<b>40.872</b>	<b>40.211</b>	<b>81.083</b>	<b>49.018</b>	<b>49.527</b>	<b>98.545</b>

Fuente: Elaboración propia a partir de Padrón Municipal de Habitantes (INE). Datos facilitados por Nastat.

6. irudia. Mugimendu migratzaileen azalpen taula (Gobierno de Navarra, 2022)

Nafarroako gobernuak 2022an egindako ikerketaren arabera, *Emakume migratuak Nafarroako Erriberan. Egoera eta erronkak*, zeinak emakume migratuen egoera aztertzen duen Nafarroako Erriberan (migratzaile gehien dituen Nafarroako tokia), 2000an emakumeak beste herrialde batean jaiotako biztanleriaren % 39,6 ziren (950). 2020an emakumeak % 48 ziren (9.667). Ikus daitekeenez, beste herrialde batean jaiotako pertsonen kopuruak asko egin du gora, bereziki emakumeena (Gobierno de Navarra, 2022).

## Jarduera proposamenak

### 1. Botere sozialaren lorea

#### HELBURUAK:

- Botere sozialaren desparekotasunaren gaineko hausnarketa.
- Pribilegioak eta gizarte zapalketak nola sortu daitezkeen identifikatzen ikastea.
- Kontzientzia kritikoa sortzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Lore itxurako fitxa, izozmendi/piramide itxurako fitxa, margoak, arbela, orriak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:


Hasteko, garatuko den dinamika testuinguruan kokatzeko helburuarekin, sarrera labur bat egingo da eta profil sozialek haien genero, klase, kultura edo adinaren arabera duten botere soziala eztabaidatuko da. Horrela dinamikan zehar landuko diren gaiak azalduko dira. Jarduera horren bidez ikasleek pribilegioen eta gizarte zapalketen inguruan duten kontzientzia zein den jakingo da.

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

##### 2. Dinamika nagusia:

Testuinguru jartze hori egin ostean, ikasle bakoitzari ondorengo ezaugarriak dituen lore bat banatuko zaio.

Lorearen petalo bakoitzean maila sozial/aldagai soziodemografikoak irudikatuta egongo dira (marraztutako marra baten bidez). Lore hori eredutzat hartuz, ikasleek lore bat marraztu beharko dute bakoitzari dagozkion mailak petalo egokian kokatuz (maila sozial/aldagai soziodemografikoak).




7. irudia. Pribilegioen izarra (Berezko lanketa, 2022)

Jarraian, bost talde sortuko dira eta bakoitzari honako profil hauetako bat emango zaio:

PROFILAK	HERRITAR-TASUNA	ETNIA/ TALDE KULTURALA	IKASKETAK	ERLIJIOA	DIBERTSITATE FUNTZIONALA	SARE SOZIALA
26 urteko gizona	Espainiarra	Arabiarra	Goi-mailako ikasketak	Musulmana	Dibertsitaterik ez	Sare sozial handia
72 urteko emakumea	Korearra	Korearra	Oinarrizko ikasketak	Budista	Mugikortasun zailtasun larriak	Sare sozial txikia
42 urteko emakumea	Espainiarra	Ijitoa	Goi-mailako ikasketak	Katolikoa	Itsua	Sare sozial handia
68 urteko gizona	Ghanatarra	Ghanatarra	Oinarrizko ikasketak	Musulmana	Dibertsitaterik ez	Sare sozial txikia
50 urteko emakumea	Marokoarra	Sahararra	Unibertsitate ikasketak	Ateoa	Dibertsitaterik ez	Sare sozial handia



Eman zaien profil soziala izatea nolakoa izango litzatekeen imajinatu eta hausnartu ostean, taldeak bigarren lorearen petaloak zehaztutako mailen arabera margotu beharko ditu. Ondorioz, loreak petalo koloredun gehiago edo gutxiago izango ditu pertsona bakoitzaren pribilegio sozialen arabera. Loreak margotu ostean, ikasleek denbora izango dute bi loreak alderatu eta horren inguruko hausnarketa egiteko.



Azkenik, loreak izozmendi batean itsatsiko dituzte profil bakoitzak duen botere sozialaren arabera. Izozmendiaren gailurrak botere sozial gorena irudikatu du.

Dinamika horren iraupena **35 minutu ingurukoa** izango da.

### 3. Amaiera eta ebaluazioa:

**Ebaluazioa** egiteko, jardueran zehar identifikatu dituzten pribilegio eta zapalketen inguruan hausnarketa bat egiteko eskatuko zaie, botere sozialen aldean gainera kontzientzia soziala garatzeko helburuarekin.

Azkeneko zati horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Rosa Parksen epaiketa

### HELBURUAK:

- Generoan eragina duten botere ardatzak ezagutzea.
- Pribilegio sozialei buruzko kontzientziazioa.
- Errealitate zaurgarriekiko enpatia sustatzea.
- Kontzientzia kritikoa sortzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, proiektagailua, orriak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Lehenengo azalpen honetan sarrera labur bat egingo da pertsona arrazializatuek bizi duten errealitatea testuinguruan kokatzeko, eta profil sozialen boterea generoaren, klasearen edo etniaren arabera zein den eztabaidatu ahal izateko. Modu horretan, askotariko eratan zaurgarriak diren pertsonak daudela bistaratuko da, Rosa Parksen kasuak erakutsiko digun bezala.

Dinamika horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

#### 2. Dinamika nagusia:

Honako jarduera hau gelan *roll playing* bat egitean datza. Horretarako, irakasleak azalduko duen honako kasu honen epaiketa antzeztuko da.

*“1955ko abenduaren 1ean, Montgomeryn (Alabama, AEB), Jolen Smith, saltoki handi bateko jostuna, lanetik itzultzen ari zen. Autobusera igo eta atzeko aldean jesarri zen, kolorezkoak (jatorri afrikarrekoak, indigenak, ekialdekoak...) zirela uste zen pertsonentzako tokian. Autobusak ibilbidea egin zuen heinean, lekuak bete ziren eta hainbat pertsona zutik geratu behar izan ziren. Jende zuria zutik zegoela konturatu zenean, gidariak autobusa gelditu eta hiru emakume beltzi altxatzeko eskatu zien. Jolen Smith ez zen altxatu, ezta gidariak salatuko zuela eta epaiketara eramango zuela esanez mehatxatu zuenean ere. (UNICEF, d.g.)”.*

Jarduera autobusean gertatutakoaren ostean egon zen epaiketa antzeztean datza. Horretarako, ikasleak bost taldetan banatuko dira eta bakoitzari honako rol hauetako bat emango zaio epaiketan antzezteko.

- **1. TALDEA:** Talde honetako ikasleak epaileak izango dira epaiketan. Ikasle horiek honako ezaugarri hauekin antzeztu beharko dute: Gizon zuria, matxista, arrazista.

- **2. TALDEA:** Talde honetako ikasleek akusatua izango dira epaiketan, hau da, Jolen Smith. Ikasle horiek honako ezaugarri hauekin antzetzu beharko dute: Emakume beltza, txiroa.
- **3. TALDEA:** Talde honetako ikasleek salatzaileak izango dira epaiketan, hau da, autobus gidaria. Ikasle horiek honako ezaugarri hauekin antzetzu beharko dute: Gizon zuria, matxista, maila-sozial altua eta gizartearen babesa.
- **4. TALDEA:** Talde honetako ikasleek 3. TALDEAREN abokatuak izango dira epaiketan. Ikasle horiek euren bezeroa (autobus gidaria) defendatu beharko dute gerta ahala gerta, gertatutakoarekin ados egon ez arren. Haien helburu bakarra epaiketa irabaztea izango da.
- **5. TALDEA:** Talde honetako ikasleak epaiketako publikoaren parte izango dira eta ez dute jakingo zein den talde bakoitzaren rola epaiketan. Ikasle horien helburua gertatzen ari dena aztertzea izango da, epaiketa amaitu ostean ikusi dutena azaldu ahal izateko.

Ikasleek epaiketaren antzezpenean aurreiritzi arrazistak eta matxistak dituzten rolak antzetzu behar izan dituztela ulertu beharko dute. Halaber, urrunak eta irrealak iruditu ahal zaizkigun rolak antzetzuko dira, jarduera amaitzean kasu hori egiazko istorio batean oinarrituta dagoela ulertzeko: Rosa Parksen kasua, zeina atxilotu, epaitu eta zigortu egin zuten udaleko ordenamendua ez betetzeagatik.



8. irudia. Rosa Parksen irudia (Cordon/Getty images, d.g.)

Dinamika horren iraupena **45 minutu ingurukoa** izango da.

### 3. Amaiera eta ebaluazioa

Jarduera **ebaluatzeko eta amaitzeko**, ikasleek epaiketan egokitu zaien rola antzetzten nola sentitu diren hausnartu beharko dute, baita horrek eskaini dizkien zailtasun eta erraztasunen inguruan. Halaber, Rosa Parksen kasua azaltzen duen honako bideo hau ikustea gomendatzen eta proposatzen da.

[Bideoa: Rosa Parksen kasua](#)

Azkeneko zati horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

Halaber, jarduera proposamen gehigarri bat aurkeztuko da irakasleak erabaki dezan, bere iritzia eta taldearen arabera, horren garapena aurreko dinamika baino egokiagoa den. Hurrengo jardueraren garapenerako oso garrantzitsua da taldearen eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea.

- **Jarduera proposamen gehigarria: Lanaren banaketa. Zenbat denbora geratzen zaie.**

#### HELBURUAK:

- Generoan eragina duten botere ardatzak ezagutzea.
- Pribilegio sozialei buruzko kontzientziazioa.
- Errealitate zaurgarriekiko enpatia sustatzea.
- Kontzientzia kritikoa sortzea.
- Zaintza lanen garrantzia bistaratzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** proiektagailua, ordenagailua, orriak, boligrafoak, paper arraitua (horma-irudiak egiteko), errotuladoreak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Sarreraren generoaren eta lan banaketaren gaiaren hurbilketa egingo da. Gaur egun, garbiketa lanak, mendekotasuna duten pertsonen zaintza, etab. normalean emakumeek garatzen dituzten lanak dira, emakume migratzaileek zehazki.

Errealitate horri buruzko ezagutza handitzeko Javier Fresserren “Las Kellys”-i buruzko film labur bat ikusiko da (hotelak eta apartahotelak bezalako ostatatze turistikorako zerbitzariak).

*Bideoa: Las Kellys*

Halaber, film laburrean emandako informazioa osatu dezaketen hainbat bideo proposatzen dira jarraian. Irakasleak erabakiko du saioan horiek ikustea beharrezkoa den.

*Bideoa: Las Kellys-en lan egoera (La Sexta)*

*Bideoa: “Hotel Explotación: Las Kellys” dokumentalaren trailerra:*

Aukeratutako bideoak ikusi eta gero, eztabaida bat sustatuko da pertsona bakoitzak gai horren inguruan duen ezagutzari buruz. Horretarako, irakasleak honako galdera hauek erabili ditzake:

- Zer egiten ari dira film laburrean agertzen diren emakumeak?
- Bideoko emakumeek egiten duten lana egiten duen emakumeren bat ezagutzen duzue?
- Ba al dakizue nolakoa den bere lan egoera?
- Zer iruditzen zaizue egoera hori?
- Nolako lan baldintzak dituzte?
- Ondo bizi ahal izateko baldintza onak dira?

Sarrera horren helburua emakume askok bizi duten errealitatea eta lan feminizatuaren prekarizazioa ezagutzea da.

Aurkezpenak **15 minutu inguru** iraungo ditu.

## 2. Dinamika nagusia:

Dinamika nagusi hau egiteko emakume migratzaile askok bizi duten errealitateari buruzko sarrera bat egingo da. Horretarako, honako ekarpen hau azalduko da adibide gisa:

*“Emakume migratzaileek diskriminazio bikoitza jasan ohi dute emakume eta migratzaile izateagatik. Askok, migratzen dutenean, etxeko lanetaz arduratzen dira (normalean ikusezina den lan bat, beste lanak dituzten baldintzak ez dituenak, soldata finkoa edo oporrak, adibidez; ez dute errekonozimendu sozialik jasotzen egiten duten lanagatik, eta lan indibiduala eta bakartia izan ohi da), eta etxekoak ez diren lanak ere egiten dituzte. Bizi garen gizartean lana generoaren arabera egituratu ohi da, eta “gizonen” eta “emakumeen” lana bereizten da. Lehenago ikusi dugun moduan, garbiketa lanak emakumeek egin ohi dituzte, eta dituzten baldintzak zeintzuk diren ikusi dugu”.*

Ondoren, gela talde heterogeneotan banatuko da, orriak eta errotuladoreak banatuko dira eta bideo labor bat ikusiko da, zeinean Espainiako emakume migratzaile askoren lan egoera azaltzen den.

### Bideoa: Emakume migratzaile askoren errealitatea

Ikusitako guztia kontuan hartuta, ikasleek orratz handiak dituzten bi erloju marraztu beharko dituzte (egun batean dagoen denbora irudikatzeko, hau da, 24 ordu), era grafiko batean emakume migratzaile batek izan dezakeen denbora librea zein den ikusteko. Modu horretan, emakumeek eguneroko lanekin lanpetuta ematen dituzten denbora tarteak marraztuko dira, azkenean, aisialdirako edo beraientzako geratzen zaien denbora librea zein den ikusteko. Adibidez, jateko ordu bat behar dela erabakitzen bada (14:00etatik 15:00etara), eta beste bat afaltzeko (20:00etatik 21:00etara), orratzak marraztu eta erlojuan adieraziko da kolore jakin batekin. Era berean, gainerako zereginak adierazi beharko dira.



- Ondo atseden hartzeko lo egiteko gomendatutako gutxieneko denbora, zazpi ordu.
- Baita erosketak egiteko, janaria prestatzeko, garbitzeko eta etxea eta familia (izatekotan) zaintzeko denbora.
- Gutxieneko lanaldia zortzi ordukoa izango da, lanaldi luzeagoa izateko aukera egongo da.
- Lanera joateko denbora ere kontuan hartuko da.
- Egunak 24 ordu ditu.

Emakume horiek duten denbora librea kalkulatu ondoren partekatu egingo da.

Eztabaida errazteko eta errealitate hori hobeto ulertu ahal izateko honako galdera hauek erabili daitezke:

- Nola sentitu zarete erlojua egitean?
- Zeintzuk izan daitezke emakume horien aisialdirako momentuak? Denbora asko da?
- Gizonen eta emakumeen artean desberdintasunak egon daitezkeela uste duzue?
- Desberdintasunak egon daitezke bertako emakumeen eta emakume migratzaileen artean?
- Noiz izan dezakete euren burua zaintzeko denbora?
- Nortzuk ateratzen diote etekina emakume horien lanari?
- Zenbat balio du haien lanak?

Dinamikak **35 minutu inguruko iraupena** izango du.

### 3. Amaiera eta ebaluazioa:

**Amaitzeko**, ikasleei eskatuko zaie egindako jarduera zer iruditu zaien esaldi batean laburtzeko.  
**Ebaluazioa** egiteko, hausnarketa labor hori eta marraztutako erlojuak batuko dira.

Amaierako jarduerak **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

## V. UNITATE DIDAKTIKOA: GIZARTE- ETA KULTURA-BIZIKIDETZA EREDUAK


### Kontzeptualizazio teorikoa

Bizikidetza ereduak hurbilketa bat egiteko, alde aurretik gogoeta egin beharra dago kultura terminoari eta alderdi soziokulturalari buruz.

Kultura terminoaren definizio onartuenetarikoa bat honako hau da *“zentzu etnografikoan, ezagutzak, sinesmenak, artea, moralak, zuzenbidea, ohiturak eta pertsona batek gizartearen kide gisa eskuratutako beste gaitasun eta usadio guztiak biltzen dituen osotasun konplexua da”*. Horrek pertsona multzo baten jokabideak eta jarrerak azaltzen dituen esanahi komunaren barne-bizipenaren garrantzia azpimarratzen du (Barrera, 2013).

Halaber, edozein kultura da **dinamikoa**; hortaz, aldatu daiteke, Jordánek adierazten duen bezala *“Kultura bat zenbat eta tinko eta estankagoa izan... orduan eta gehiago pobretzen da. Gizarte batek bestelako kultura ikusmoldeen hartu-emanak onartzen duenean, ordea, orduan eta gehiago aberasten eta osatzen da; berezko identitate kulturala ezabatzen ez den heinean. Hortaz, irekiera kulturala gizarte heldutasunaren adierazgarria da”* (Jordán, 1994).

Halaber, kulturak ez daude isolatuta, eta **dimentsio soziokulturalari** erantzuteko, etengabe gertatzen dira gehienbat kultura nagusiaren arauak eragindako transferentzia eta trukeak. Rodríguez (2008) honako hau dio kultura nagusiaren eta horrekin batera bizi diren beste kulturen harremanaren inguruan: *“Errespetua, bizikidetzaren arloan, ez dator pertsonaren edo herrien duintasunaren aitorpenetik, ezta tolerantziatik, baizik eta horien negoziatzearen gaitasunetik edo influentzia mailatik, botere lehia latzen markoan”*. Hau da, kultura-aniztasunak lehentasuna ez duenean (gizarte aberastasunaren kontzeptu gisa) bizikidetza arazo bat sortzen da, eta aniztasunaren erakusgarri diren kulturek haien identitatea defendatzeko duten gaitasuna baztertu egiten da.



9. irudia. Bizikidetza ereduak irudia (Solidaridad Internacional Andalucía, 2017)

### Kultura-aniztasuna

Bizikidetza eredu honetan hainbat kultura edo talde kultural nazional, etniko edo erlijioso lurralde berean bizi dira elkarrekintzarik gabe. Hau da, gutxiengoak gatazka egoeran bizi daitezke edo modu pasiboan elkar jasan dezakete, baina onarpenik egon gabe. Kasu horietan,

jarrera eta jokabide diskriminatzaileak gerta daitezke arau zehatzaile bat egonda ere (Jordán, 1994).

### Kulturartekotasuna

Kulturartekotasunaren eredu horizontaltasuna, aitorpena, transferentzia eta sinergia dago leku bat partekatzen duten kultura edo taldeen artean. Bizikidetzaren eredu horrek pertsonen arteko elkarrekintza baketsua laguntzen du (Hidalgo, 2005).

UNESCOren arabera, kultura bakoitza bere sustraian bidez elikatzen da, baina gainerako kulturekin harremanetan dagoenean baino ez da garatzen, elkarrekintzaren, trukearen eta bakoitzaren balio eta bizimoduaren elkarrekiko onarpenaren bidez. Berdintasuneko botere harremanak lortzeko tolerantzia prozesu aktibo bat beharrezkoa da, zeinean pertsona bakoitzak garrantzia bera duen eta haren duintasun pertsonala errespetatzen den.

### Kultura-aniztasunetik kulturartekotasunera

Kultura-aniztasuna gero eta handiagoa da gure gizarteetan; denboraz, kulturartekotasunera igarotzea hobea izango litzateke. Hala eta guztiz ere, historian kultura-aniztasuna kulturartekotasunetik gabe eman izanaren adibideak ikus daitezke, besteak beste, arrazismoa, ghettoak, etnozidioak eta erresistentzia kulturalak, linguistikoak edo erlijiosoak.

Hidalgok (2005), adibidez, hezkuntza kultura-aniztasunetik kulturartekotasunera igarotzeko ekintza nagusia dela ulertuta, Acante (1996) aipatu zuen, zeinak kulturartekotasuna hezkuntzan honela definitu zuen, *“giza kultura guztiekiko jakin-min bizia garatzen duten curriculum, jarduerak akademiko, programa eta proiektuak sortzeko eta sustatzeko gaitasuna”*. Halaber, Michaelen eta Thompsonen (1995) kulturartekotasuna honela definitu zuten: *“kultura-aniztasuna sortu nahi duen filosofia bat, desberdintasun kulturalak ulertzen saiatuz, jendearen kulturek euren bizitzetan egin dituzten ekarpenak baloratzen eta horietaz gozatzen lagunduz, baita hesi kulturalak botatzeko edozein biztanleren guztizko parte-hartzea bermatuz”*.

Gizartean kulturartekotasuna dago hainbat errealitatearen artean harreman interaktiboak eratzen badira; hortaz, *“Kultura-aniztasunetik kulturartekotasunera igaro daiteke rolen eta tokien etengabeko birnegoizazioaren, eta sintesi prozesuak batu, lotu eta zuzentzen dituzten balioen bereizketaren bidez. Hortaz, hautemate-kate bati buruz ari gara: nik beste norbait nola hautematen dudan, beste norbaitek nola hautematen nauen ni eta nik nola hautematen dudan”* (Mancini, 2001).

### Transkulturalitatea

Eredu honetan kultura edo pertsona batek beste baten ezaugarriak hartzen ditu, horrek ez du gatazka bat suposatzen, baizik eta aberastasun kulturala. *“Transkulturalitatea egoteko, kultura ezberdinak dituzten gizabanako taldeak zuzeneko harreman jarraitua dutenean sortzen diren fenomenoak eman behar dira, horren ondorioz, talde baten edo bien jatorrizko kulturaren ereduak aldatuko dira”* (Tarrés, 2001).

Transkulturalitatea kulturen arteko hurbilketa ahalbidetzen duen prozesu bat da, baita lotura berrien ezarpena, horrela gertaera kultural berdingabeak eratuko dira. Modu horretan, errespetua, akordio inplizitu eta esplizituak eta arraza, etnia eta sinesmen erlijioso bereizitasunen gainetik balio unibertsalen sustapena piztu nahi da (Hidalgo, 2005).

Transkulturalitatea lortzeko prozesua hiru faseetan banatzen da: galera partziala, eranstea eta oreka (Tarrés, 2001).

Hasieran, transkulturalitatea berezko kulturaren ezaugarrien galera bat bezala antzematen da, orokorrean partziala, eta bigarren fasean, beste kulturen ezaugarriak eransten dira. Azkenik, transkulturalitatea garatzeko, oreka sortu beharra dago, eta prozesuaren parte diren kultura guztiek beren kulturaren berezko osagai batzuk gehitu eta batzuei uko egin beharko diete (Tarrés, 2001).



10. irudia. Kontzeptuen  
erlazioaren eskema (Berezko  
lanketa, 2022)

## Jarduera proposamenak

### 1. Kulturarteko sarea

#### HELBURUAK:

- Taldean pertsonarteko ezagutza eta jakin-mina sustatzea.
- Dinamismo kulturala ulertzea.
- Kultura trukearekiko irekitzea piztea.
- Harrera herrialdearen gizarte identitatea errealitatearekin bat etortzea migratzaileen etorreraren aurrean.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Artilezko haril bat, proiektagailua, ordenagailua, orriak, boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Jarduerarekin hasteko, kultura kontzeptua laburki azalduko da. Horretarako, irakasleak *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili edo aurkezpena ikasleen ekarpenekin sortu dezake.

Halaber, kulturartekotasunari buruzko bideo bat ikusiko da informazio gehiago jasotzeko.

[Bideoa: Zer da kultura-aniztasuna?](#)

Aurkezpenak **10 minutu inguru** iraungo ditu.

##### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera hau egiteko gune garbia behar da; ikasleek eta irakasleak birbil bat sortu eta mugitzeko adina leku izan dezaten. Parte-hartzaile batek (irakaslea bada, eredu izan daiteke) jolasa hasiko du taldeko beste pertsona bat aipatuz eta berari artilezko harila botako dio, hariaren muturra askatu barik. Aukeratutako pertsonari harila botatzen dion bitartean, ozenki beste kultura batetik “inportatu” den baliabide/osagai bat izendatuko du. Osagai hori janaria, musika mota, asmakizuna edo artea izan daiteke, besteak beste.

Pertsona guztiek eredu bera jarraituko dute artilearekin armiarma sare bat sortu arte. Parte-hartzaile guztiek parte hartu dutenean, armiarma sarea desegingo da kontrako ordenean. Horretarako, artilezko harila jaso duen azkeneko pertsonak dinamikaren lehenengo atalean jaurti dionari itzuli beharko dio. Oraingoan, artilezko harila itzultzean ozenki aipatuko da beste herrialde edo kulturetara transmititu den kultura euskal- nafartar edo espainiarreko berezko



osagai bat. Modu horretan, haria berriro bilduko da eta artilezko harilak dinamikaren hasieran zuen itxura berreskuratuko du.

Jarduerak **35 minutu inguruko iraupena** izango du.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Jarduera amaitzeko, kulturaren iragazkortasunaren eta kulturak aberasteko eta garatzeko kulturen arteko harremanaren garrantziaren inguruan hausnarketa egin eta eztabaidatuko da.

**Ebaluazioa** egiteko, jardueraren inguruko idatzizko hausnarketa laburra eskatuko da.

Amaierako jarduerak **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Gure berezko kultura sortzen

### HELBURUAK:

- Kultura kontzeptuaren inguruko hausnarketa egitea.
- Ezagutza eta talde kohesioa sustatzea.
- Taldekideen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ikustea.
- Pertsonarteko eta kulturarteko komunikaziorako tresnak eskuratzea.
- Norberaren eta beste pertsonen banakotasunari buruz kontzientziazatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Arbela, kultura berriaren sorrerarako fitxa teknikoa. ([2. eranskina](#)), kartulinak, post-itak, orriak, boligrafoak eta kolorezko arkatzak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Jarduerarekin hasteko, kultura kontzeptua laburki azalduko da. Horretarako, kulturari buruzko adostutako eta guztion artean onartutako berezko esanahia garatuko da, dinamizatzaileraren laguntzarekin.

Aurkezpenak **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

#### 2. Dinamika nagusia:

Dinamika nagusi honek bi atal ditu:

1. Alde batetik, ikasleek, indibidualki, post-it batean idatzi beharko dute euren kulturarekin lotura duen osagai edo ezaugarri bat; adibidez: Gabonak ospatzen ditut. Bestalde, beste post-it batean, parte-hartzaileek, euren kultura edozein dela ere, definitzen dituen ezaugarri bat idatzi beharko dute; adibidez: dantzatzea gustuko dut.

Amaitzean, banakako oharretan idatzitakoa partekatu da. Taldeko pertsona batek oharra aurkezten ari den pertsonarekin ezaugarri edo osagairen bat partekatzen badu, lehenengoa aulkitik altxatu beharko da.

Jarduera honen helburua pertsona bakoitzaren berezitasuna bistaratzea da, nahiz eta kultura bera izan, baita guztiz ezberdina den kultura bateko pertsona batekin bereizgarri asko partekatu daitezkeela.

2. Talde txikietan, alde aurretik modu heterogeneoan sortuak, ikasleei kultura berri bat batera sortzea proposatuko zaie, taldekideen ezaugarri eta komunean dituzten gustuen arabera. Horretarako, hainbat aldagai kontuan hartu daitezke: izena, balioak, jaiak, ohiturak, musika edo janzkera, besteak beste. Adostutako kultura berrien



ezaugarriak partekatu ondoren, taldeei horiek kartulinetan era askean idatzi eta marrazteko eskatuko zaie.

Denbora bukatzen denean, sortutako kultura berriak partekatuko dira.

Dinamika osoak **45 minutu inguruko iraupena** izango du.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

**Amaitzeko** eta **ebaluazioa** egiteko, taldeek sortutako dokumentuak batu eta hausnarketa azkar bat egingo da, zeinean parte-hartzaile bakoitzak kultura kontzeptua esaldi batekin deskribatuko duen.

Zati horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.



Halaber, jarduera proposamen gehigarri bat aurkeztuko da irakasleak erabaki dezan, bere iritziaren eta taldearen arabera, horren garapena aurreko dinamika (Gure berezko kultura sortzen) baino egokiagoa den. Hurrengo jardueraren garapenerako taldearen eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutu beharra dago, hausnarketarako, pentsamendu kritikorako eta gatazka konponbiderako gaitasun altua beharrezkoa izango baita.

#### ○ **Jarduera proposamen gehigarria: Zibilizazioa kezka betetik**

##### **HELBURUAK:**

- Arazo baten aurrean interpretazio ezberdinak egon daitezkeela ezagutzea eta onartzea.
- Pertsonarteko komunikazioa eta eztabaidatzeko gaitasuna sustatzea.
- Analisi kritikorako gaitasuna garatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Fitxak kasuekin eta informazioarekin ([3. eranskina](#)), arbela, orriak, boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Tokia eta taldea antolatzea. Jarduera prestatzea.

##### **DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:**

###### **1. Sarrera:**

Jarduera honekin hasteko, kultura, etnozentrismo eta kulturartekotasun kontzeptuak laburki azalduko dira. Horretarako, irakasleak *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili edo aurkezpena ikasleen ekarpenekin sortu dezake.

Aurkezpenak **10 minutu inguru** iraungo ditu.

###### **2. Dinamika nagusia:**

Dinamikarekin hasteko, irakasleak fikziozko Cleixte herriaren ezaugarriak laburki azalduko ditu. Fikziozko herri horren sorrera Sentinelese tribu indigenaren egiazko kasuan oinarrituta dago. Jarraian, behar izatekotan, herri horri buruzko informazio gehiago jasotzeko esteka dago.

[Sentinelese herriari buruzko informazioa](#)

Aurkezpen hori egin ondoren, ikasleei aurkeztutako arazoari buruzko lau jarrera azalduko zaizkie (Ikusi [3. eranskina](#)).

Ikasgelaren erdian jarrera bakoitzari dagozkion lau fitxak kokatuko dira, eta ikasleei, indibidualki, aurkeztutako arazoa konpontzeko egokiena dela uste duten jarreraren kokatzeko eskatuko zaie.



Ikasle guztiek arazoa konpontzeko jarrera bat aukeratu dutenean, lehenago azaldutako lau jarrerari dagozkien talde bakoitzeko partaideek bere taldekideei azalduko diete zergatik aukeratu duten jarrera hori, eta batera euren jarrera defendatzeko arrazoibidea osatuko dute.

Hori egiteko denbora bukatu ostean, lau jarreraren arteko eztabaida hasiko da. Talde bakoitzaren xedea euren arrazoibidearekin beste taldeak konbentzitzea izango da. Eztabaidan zehar partaideak jarreraz aldatu ahal izango dute. Lau taldeek aurkezpena egiteko denbora zehatza izango dute.

Halaber, dinamizatzailerak erabakiko du [3. eranskineko](#) informazio gehigarria ematea beharrezkoa den edo ez azkeneko eztabaida bat pizteko edo hasteko.

Jarduerak **35 minutu inguruko iraupena** izango du.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Dinamika bukatu ondoren, **amaitzeko** eta **ebaluazioa** egiteko, ikasitakoari buruzko talde hausnarketa egingo da.

Amaierako jarduerak **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

## VI. UNITATE DIDAKTIKOA: Kulturarteko elkarrizketarantz aurrera egiten

### Kontzeptualizazio teorikoa

Mugimendu migratzaileen hazkundearen ondorioz, beste kultura batzuk berezkoan nola integratzen den eta ulertzen den definitzen duten hainbat korrante antropologiko sortu dira.

#### Entonzentrismoa

Etnozentrismoa antropologiak kontzeptualizatutako definizio bat da, gizabanakoak edo talde sozialak errealitatea beren ezagutza kulturalen arabera ulertzera daramatzan joera izendatzeko (Sumner, 1996). Hau da, norbaitek mundua bere errealitatetik soilik ikusten duenean gertatzen da.

Beste modu batera esanda, entonzentrismoa norberaren talde etnikoa garrantzitsuena delako edo horren ezaugarri gehienak beste talde etnikoenak baino hobeak direlako ustea da (Movimiento asturiano por la paz, 2012).

#### Kultura-erlatibismo

Kultura-erlatibismo, zeinaren aitzindaria Franz Boas izan zen, kultura jakin batek edo talde sozial batek berezko ingurunera eta momentu historiko bakoitzaren berezitasunetara moldatzeko dituen balio, sinesmen eta ohiturak ulertzeko eredua da. Kultura-erlatibismoak beste kultura baten edozein ezaugarri balio bera izan behar duela agerian jartzen du, berezko balioak erlatibotzat eta horizontaltzat hartzen dituelako (Altarejos eta Moya, 2003).

Ikuspegi horrek kultura guztien indarra eta aberastasuna babesten du, eta horien edozein balioespen absolutista, moral edo etiko ezeztatzen du. Hortaz, balio horiek ez datoz bat etnozentrismoarekin, eta kulturen arteko lotura ulertzeko beste eredu bat eskaintzen dute (Cruz, Ortiz, Yantalema eta Orozco, 2018).

#### Kulturarteko elkarrizketa

Pertsonok gure kulturaren, gure banakotasunaren mugen edo beste kultura batzuekin dugun harremanaren inguruko iritzia ematera bultzatu gaitzaketen interesak izan ditzakegu. Adibidez, *pertsona guztiak berdinak gara edo desberdinak? Zein faktorek dute eragina gure identitate pertsonalaren eta sozialaren eraikuntzan? Beharrezkoa al da talde edo azpitalde multzo baten parte izatea, eta zertarako balio digu horrek? Gizarte- eta kultura- bizikidetzaren gaiarekin sentsibilizatuak gaude? Zein da gure gizarte eredurik onena?*

Kulturarteko elkarrizketaren helburua honako hau da: kulturak kategoriak, kode moralak etab. baino haratago zabaltzea; kultura bakoitzaren kideen artean hausnarketarako gaitasuna sustatzea; eta kultura bakoitzaren ohiturak erlatibizatzea; horrela, kulturen arteko balio eta beste elementuen iragazkortasuna ahalbidetzeko (Fornet – Betancourt, 1999).

Zabaltze horren bidez eta aldatzeko aukera onartuz, kulturarteko elkarrizketak kulturak autoezagutzarako eta elkarren ezagutzarako prestatzen ditu. Halaber, pertsonen eta horien kulturen harremanaren berregituratzea lortu nahi du (Cruz et al., 2018).

Ildo horretan, **antiarrazakeria** kulturarteko elkarrizketa ahalbidetzeko analisi eredu eta esku-hartze metodologia gisa kokatzen da. Antiarrazakeriak batera bizi diren talde kulturalen arteko

desparekotasun egoera zehazten duten faktore sozial, politiko eta ekonomikoak aztertzen ditu, bai maila globalean (globala, sistema ekonomikoa, nazioarteko harremanak etab.), bai tokian tokiko mailan (ikastetxea, herria etab.).

Gainera, hezkuntza antiarrazistak sentsibilizazioa baino gehiago lortu nahi du, eta elkarriketan eta parte-hartzean oinarritzen den pertsonen arteko harreman eredu baten alde lan egiten du. Halaber, herritarrak ez direla kontsideratzen den pertsonen (migratzaile “ilegalak”) oinarritzko eskubideak aitortzen ez dituzten sistemak salatu nahi ditu, zeinak desberdina dela uste den pertsonaren aurkako ideia, sinesmen eta indarkeriazko jokabide estrukturalak iraunarazten dituzten (UNESCO Etxea, 2016).

Jarraian, kulturarteko elkarriketak aurrera egin dezan **gainditu beharreko erronka batzuk** aurkeztuko dira.

### Gizarte-kode eta -balio ezberdinak

Gizarte bakoitzak berezko kode eta balioak ditu. Beste kultura bateko pertsona bat edo pertsona talde bat kultura berri baten parte izaten saiatzen denean, kode eta balio horiek ulertu eta onartu behar ditu. Balio eta kode horiek ulertzea zaila izango da, eta, ondorioz, denbora eta esfortzua beharrezkoak dira. Batzuk ohikoak dira (zeure burua aurkeztean aurpegiera atsegin bat agertzea edo eskerrak ematea eta barkamena eskatzea, adibidez), beste batzuk, ordea, alderantziz ulertu daitezke (Bestué, Garcia-Beyaert eta Ruiz de Infante, 2012).

Adibidez, norbaitekin hitz egiten ari garenean pertsona hori begietara begiratzea konfiantza eta interesa agertu dezake kultura batzuetan, beste batzuetan, norbait begietara zuzenean begiratzea desafiatzailea eta errespetu falta bat izan daiteke.

### Hizkuntza ezberdinak

Garrantzitsua da aipatzea komunikazioan sortzen diren zailtasunak harremanak aurrera egiten duen ahala eta aldean arteko konfiantza hazten denean eboluzionatzen duela, ikasteko gune seguruak sortzen direnean.

Migratzaileek gero eta trebetasun komunikatibo handiagoa izango dute, harrera herrialdeko kodeak eta hizkuntza ulertuz eta ikasiz doazen heinean; baita hitz egiteko gaitasun handiagoa, eta horri esker konfiantza irabaziko dute besteekin hitz egiteko orduan. Halaber, pertsonarteko eta kulturarteko harremanak sortu nahi dituzten harrera herrialdeko pertsonak, laguntza eskainiz eta enpatia erabiliz, ahalmen sortzaile handia (komunikazio estrategiak) eta entzutezko gaitasuna garatuko dute; zeinek komunikazio oztopo horiek gutxituko dituzten eta aldean arteko komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duten (Bestué et al., 2012).

### Komunitatearen parte-hartzea: kulturarteko elkarriketa laguntzeko gunea

Komunitate ekintza herritarren erakunde eta mugimenduek garatzen dute, batzuetan administrazio publikoen laguntzarekin. Entitate eta mugimendu horien ekintza pertsonaren testuinguru hurbilean eta ohikoan garatzen da, eta horren xedea oinarritzko harremanen indartzea (onarpen, afektibitate, esker on eta elkarrekotasunaren ikuspuntutik) eta berezko beharren eta komunitatearen beharren asetzea da (Galeano, Sosa eta Méndez, 2021).

Globalizazioaren testuinguruan, komunitate ekintza funtzionamendu ereduak sortzeko, indartzeko edo birpentsatzeko tresna da.

Horren adibide bat berriki bizi izan dugun pandemia egoera izan daiteke. Egoera horretan auzoan gizarte laguntza eta elkarren arteko laguntza zein garrantzitsua den ikusi genuen, babes egitura formal jakin batzuek eraginkortasuna galdu zutenean (UNESCO, 2022).

Logikoki, badaude eskala handiagoan tresna instituzionalen eta baliabide eta erakunde formal eta teknikoen bidez (estatu-mailakoak, merkataritzakoak edo solidarioak) erantzun behar diren gizarte erronkak, baina komunitateentzat eta komunitate ekintzentzat arriskutsua izan daiteke horiengandik gehiegi espero izatea (UNESCO, 2022).

Komunitate dinamikak, familia artekoak ez direnak bereziki, nahitaezkoak baina apurkorrek dira; orokorrean, espezializazio handirik eta ordain ekonomikorik ez duten pertsonen borondatean, motibazioan eta konpromisoan oinarritzen baitira.

Ekintza horiek oraindik ere garrantzitsuagoak dira migratzaileei zuzenduta badaude, zeinak askotariko galera eta nahigabeak jasan dituzten, eta, ondorioz, harrera gizartean bizi duten errealitate berriari egokitzeko prozesuan bakardade sentimendu handi bat duten. Zentzu horretan, komunitate ekintzen helburua gizartearen parte diren pertsona guztien inklusioa da; horrela, tokiko herritarren eta migratzaileen arteko gizarte kohesioa eta kulturarteko bidezko bizikidetzat sortzeko. Inklusio horrek sare soziala indartzen du, eta harreman eta eztabaida guneak sortzen ditu komunitateko errealitatea bistaratzeko eta arazoen autogestioa eta eraldaketa ahalbidetzeko; horrez gain, pertsona migratzaileei gizartearen kide direla eta laguntza dutela sentitzen lagunduko die (Galeano et al., 2021).

Deslotura, indibidualizazioa eta bakardadea nagusi diren garai honetan, komenigarria da inguruko baliabideen bidez komunitatean sinergiak sortzea laguntza eta hausnarketa sare informalak eratzeke eta guneak, jarduerak eta ideiak partekatzeko.

## Jarduera proposamenak

### 1. Kultura-aniztasunaren zuhaitza

#### HELBURUAK:

- Kulturartekotasunari buruz hausnartzea.
- Kultura desberdintasunen egunerokoa ezagutzera ematea.
- Ikasleak beste kultura batzuk bere kabuz ikertzea sustatzea.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Kolorezko kartulinak, post-itak, errotuladoreak, boligrafoak, pegatinak, gailu elektronikoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 1 (12-13 urte) eta DBH 2 (13-14 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Taldeka lan egiteko gunea eta materiala prestatzea.

#### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

##### 1. Sarrera:

Sarrera egiteko, kulturartekotasunaren testuinguruan, besteak beste, garrantzitsuak diren kontzeptu batzuk laburki azalduko dira. Horretarako, irakasleak ikasgai honetako *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili dezake.

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

##### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera hau taldeka egin behar da, talde txiki, orekatu eta heterogeneoetan. Talde bakoitzak zuhaitz handi bat marraztu beharko du, sustrai, enbor, adar eta hostoekin. Zuhaitz horiek kulturartekotasunarekin lotura izango dute. Bertan kulturen arteko harremanak suposatzen duen aberastasuna eta hazkundera irudikatuko da.

Horretarako, ikasleek, taldeka, kulturekin lotura duten ideiak (ohiturak, musika edo jantzi tradizionalak, adibidez) idatziko dituzte taldearen zuhaitzean itsatsiko diren post-itetan. Halaber, gailu elektroniko bat emango zaio azpitalde bakoitzari sarean bilatzeko gustuko dituzten beste kulturen ezaugarriak edo beste hizkuntza batean idatzi nahi dituzten hitzen itzulpenak.

Kulturartekotasunaren zuhaitzak sortu ondoren, gainerako taldeekin partekatuko dira, kulturen aitorpenak suposatzen duen aberastasunari buruz hausnarketa egiteko helburuarekin. Horrekin, kulturarteko zuhaitz partekatu bat osatuko da, zeinean azpitaldeetan egindako zuhaitzetako ikasleei gehien gustatu zaizkien ideiak islatuko diren.

Dinamika horren iraupena **40 minutu ingurukoa** izango da.

##### 3. Amaiera eta ebaluazioa:



Amaitzeko eta ebaluazioa egiteko, landutako materiala batuko da.

Azpiatal horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

## 2. Taldea aberasten

### HELBURUAK:

- Beste kulturekiko hurbilketa eginez ezagutza sortzea.
- Kultura-aniztasunarekiko tolerantzia.
- Beste kultura interpretazio batzuk berezkoa baloratzeari utzi barik onartzeko malgutasun kognitiboa.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Ordenagailua, proiektagailua, arbela, orriak, errotuladoreak eta boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Taldeka lan egiteko altzariak eta materiala prestatzea.

### DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:

#### 1. Sarrera:

Sarrera egiteko, kulturartekotasunaren testuinguruan, besteak beste, garrantzitsuak diren kontzeptu batzuk laburki azalduko dira. Horretarako, irakasleak ikasgai honetako *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili dezake.

Dinamika horrek **10 minutu inguruko iraupena** izango du.

#### 2. Dinamika nagusia:

Jarduera nagusi honetan *Stranger Things* telesailaren 2. Kapituluko zati batzuk ikusiko dira, Netflix plataforma digitalean. Zati horietan "Once" ingurune berri batean nola sartzen den eta horretara moldatzen, bere lagun berriek berari bezala, nola saiatzen den erakusten da. Modu horretan, desberdintasunek egoera zailei aurre egiteko orduan oso lagungarriak diren aniztasuna eta aberastasuna sortzen dutela adierazten da.

Hurrengoak dira aukeratutako zatiak, haietan aurkeztutako gaien arabera:

- **ONCEren aurkezpena:** hasieratik 04:36 minutura.
- **Protagonisten elkar ezagutzea:** 5:18 - 16:35, 21:20 - 23:00 eta 28:30 - 29:55 minutuetan.
- **Adiskidetasunaren balioa:** 36:01 - 37:11 eta 40:14 - 41:50 minutuetan.

Talde txiki, orekatu eta heterogeneoak sortuko dira, eta ikasleei hausnartzeko eskatuko zaie antzeko egoera batean dagoen pertsona bati bere ingurune berriaren parte bihurtzen nola lagunduko lioketen. Lana errazteko, honako galdera hauek erabili daitezke:



- Zure kulturako zer gauza probatzea gomendatuko zenioke?
- Zer jakin nahiko zenuke bere kulturari buruz?
- Zer egin lezake eta zer egin zenezakete ingurunean? Adibidez, kirolak edo aisialdi jarduerak.
- Bera laguntzeko gai izango litzatekeen norekin hitz egin beharko luke?
- Nola egin ditzake lagunak?
- Ingurune berri hori ulertzeko eta bertan moldatzeko arazorik izango lukeela uste duzu?

Dinamika horren iraupena **25 minutu ingurukoa** izango da.

### **3. Amaiera eta ebaluazioa:**

Amaitzeko, talde txikietan landutakoa partekatuko da eta, txandaka, egindako jarduerari buruzko iritzia emango da.

Azpiatal horrek **15 minutu inguruko iraupena** izango du.

Jarraian, jarduera proposamen gehigarri bat aurkeztuko da irakasleak erabaki dezan, bere iritziaren eta taldearen arabera, horren garapena aurrekoarena baino egokiagoa izan daitekeen. Hurrengo jardueraren garapenerako oso garrantzitsua da taldearen eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta motibazioak ezagutzea.

○ **Jarduera proposamen gehigarria: Sarean partekatzen**

**HELBURUAK:**

- Beste kulturekiko hurbilketa eginez ezagutza sortzea.
- Kultura-aniztasunarekiko tolerantzia.
- Beste kultura interpretazio batzuk berezkoa baloratzeari utzi barik onartzeko malgutasun kognitiboa.

**BEHARREZKO MATERIALA:** Baliabide elektronikoak (ordenagailuak), orriak, boligrafoak.

**IRAUPENA:** 55 minutu.

**ADINA:** DBH 3 (14-15 urte) eta DBH 4 (15-16 urte).

**ALDEZ AURREKO ANTOLAKETA:** Ikasgela talde txikietan lan egiteko antolatzea eta azpitalde bakoitzarentzako materiala prestatzea.

**DINAMIKAREN DESKRIBAPENA:**

**1. Sarrera:**

Sarrera egiteko, kulturartekotasunaren testuinguruan, besteak beste, garrantzitsuak diren kontzeptu batzuk laburki azalduko dira. Horretarako, irakasleak ikasgai honetako *Kontzeptualizazio teorikoa* atalean eskainitako materiala erabili dezake.

Dinamika horrek **5 minutu inguruko iraupena** izango du.

**2. Dinamika nagusia:**

Jarduera honetan ikasleak talde txiki, orekatu eta heterogeneoetan banatuko dira. Talde bakoitzak jarduera garatzeko beharrezko materiala eskura izango du; gailu elektroniko bat eta beharrezko oharra hartzeko papertegi materiala.

